

BI MILA ETA HOGEITA HIRU



URTEKARIA

 **anboto**



Bertako ekoizleekin konpromisoa

Hemengoak gara eta bertako produktuen kontsumoa sustatzen dugu



Hemengoak
izatea ona da



EROSKI

zurekin

URTEKO ERREPASOA

Urtekari honen bitartez, 2023ko albisterik esan-guratsuenen errepassoagaz hasi dugu urtea. Zailtzarrik barik, udal hauteskundeek eskualdeko aktualitatearen erritmoa markatu dute. Hauteskundeetako emaitzei erreparatuz gero, Durango izan da ikusminik handiena piztu duen herria. Alderirik bozkatuena EH Bildu izan den arren, EAJK eskuratu du alkatetza, PSE-EEgaz koalizioan eta PPren babesagaz. Indar aldaketa Durangon, eta kontrako norabidean ere aldaketak Abadiñon, Atxondon eta Zaldibarren, EAJtik EH Bildura, hain zuzen ere. Gainerako herrietan indar aldaketarik barik. Eta, Mankomunitatean, oraingoan EH Bilduk eskuratu du agintea, eserlekuen aritmetikari eskerrak.

Kolore bateko zein besteko politikariek beste lau urte dituzte Durangaldeko herrietan bizi ditugun errokei aurre egiteko: pertsona zaurgarriei babesa ematea, zaintza erdigunean ipintzea, berdintasun politika erreala martxan ipintzea, euskara indartzea, kultura bultzatzea, etxebizitza arloko beharrezan erantzutea, zerbitzu publikoak egonkortzea, jasangarritasuna indartzea, azpiegituren mantentze-lanak egitea, merkataritzan ixten ari diren dendek erreleboa izatea, kulturartekotasuna sustatzea... Ez da gutxi egiteko dagoena.

Urte honetan ANBOTOn kaleraturiko elkarriketen artean, eskualdetik haratago doakigu pentsamendua. Urrian, Mohammad Farajallah

Zisjordaniako Hebron hirian jaiotako palestinarraz izandako solasaldi gordina kaleratu genuen, eta urtekari honetan ere aktualitate izaten jarraitzen du. Farajallah Zornotzan bizi da gaur egun. Etenbako bonbardaketak Palestinan, beste garai batean beste leku batzuetan gertatu ziren legez. 86 urte joan dira Durango bonbardaketa gertatu zenetik, 87 faxistek Otxandion eraso egin zutenetik. Sasoi hartako gertaera latzek oraindino ere argitu barik jarraitzen dute. Zornotzako hilerrian gerra zibileko 51 pertsonen gorpuzkiak hiru hobi komunitan aurkitu zituzten abenduan, zortzi hamarkada baino gehiago joan eta gero. Durangon eta Otxandion ere gerrako hobi komunak izan zirela jakin arren, ezin izan dira aurkitu.

Eta abenduak beste era bateko berriak ekarri dizkigu. Durangoko Azokan bizi izan genuen aniztasuna itzela izan zen. Zorionak bost egun haieran fantasia hori posible egin zenuten guztioi. Handiak zarete!

Eta zuri, irakurle, eskerrak bihotzez beste urte batez ANBOTO babestearren. Urte berri honetarako onena opa dizugu. Eskerrik asko Anbotokide, iragarle, kolaboratzaile, banatzaile eta informatzailei. Jarraitu dezagun gure komunitatea bertatik bertara lantzen.

Urte Berri on!

AURKIBIDEA**4** URTARRILA**8** OTSAILA**12** MARTXOA**16** APIRILA**20** MAIATZA**24** EKAINA**28** UZTAILA**32** ABUZTUA**34** IRAILA**38** URRIA**42** AZAROA**46** ABENDUA

Okm:

batzen gaituen
distantzia

30€
urtean!

Egin zaituzte anbotokide!

anbotokide@anboto.org

abantaila
guztiak
hemen



*Oinarri legez euskara
zuen istorioetara
Durangaldez kontatu dugu
bertatik bertara*

*Hogeita hirua joan da
Laua bertan dugu jada
Berrien bidez berrien berriz
elkartuko gara*

anboto
kide



Ramon Zubiaurreri buruzko erakusketa Durangon

Erreportajea -
DURANGO-GARAI

> **ARTEA.** Durangoko Arte eta Historia Museoak Ramón Zubiaurre (1882-1969) margolariari buruzko erakusketa egin zuen urte hasieran. Ramón, Valentín eta Pilar neba-arreba garaitarrak ikur garrantzitsuak izan ziren artearen munduan. Museoako zuzendari Garazi Arrizabalagak adierazi zuenez, Rebecca Guerra izan zen erakusketaren komisarioa. "Guerrak Valentinen lana aztertu zuen bere tesian. Museoak Ramonen kuadro bat bazeukanez, bere erakusketa antolatzea erabaki genuen", gaineratu zuen Arrizabalagak. Miren Pilar Gutiérrez Ramonen arreba Pilarren biloba da. Haren amonak modelo lanak egin zituen margolan batzuetarako (horietako bat museoan ikusgai izan zen) eta Gutiérrez "oso pozik" agertu zen erakusketagaz. "Erakusketa txikia da, baina mimo handiz egindakoa", esan zuen.



Urdax Magunazelaia, Euskal Herriko txapeldun

Kirola - OTXANDIO

> **HERRI KIROLAK.** Sei urteko parentesiaren ondoren, Urdax Magunazelaia harri jasotzailea plazetara bueltatu zen 2020an. Harrezkero, Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapelketak irabazi zituen, baina ez zen emaitza horiekin konformatu. Helburu gehiago ipini zituen urteari begira: pare bat marka egiteko esperantza zuela azaldu zuen Otxandion bizi den abadiñarrak. Herri kirolen munduan "pertsona maitatua" sentitzen dela adierazi zuen Magunazelaia: "Plazetan igartzen dut berotasun hori".



Labeak amatatzeko ordua Barruti baserrian

Herririk herri - ELORRIO

> **GIZARTEA.** Urtarrilaren amaieragaz batera iragarri zuten Leaniz okindegiko Maite Leanizbarrutiak eta Lorea Leanizbarrutiak behin betiko amatatuko zituztela labeak. 28 urtean, egunero-egunero egon ziren okin eta gozogile lanetan. Azken San Blasak ere gozatu zituzten Abadiñon, eta martxo aldera erretiroa hartu zuten. Maitek negozioaren bidearen amaieran "osopozik" sentitzen zirela adierazi zuen, negozioa ez zutelako gainbehera batean utzi, "topera" zegoenean baino.

Euskarazko umorea entzungai San Agustinen

Herririk herri - DURANGO

> **EUSKARA.** Durangoko Euskal Herriaren Euskarazek Bakarrizketen III. edizioa egin zuen urtarrilaren 27an. Gorka Madrazo eta Joana Ocaña San Agustin Kulturguneko oholtzara igo eta ikusleak barreka ipini zituzten kideetariko bi dira. Ocañaren berbetan, bakarrizketetan bakarrik zaude, "zu zeu zeure hustasun horregaz". Madrazoren iritzian, horrek guzti horrek "motibaziotik eta morbotik" ere badu.





Sagardo denboraldia Uxartetik begira

Herririk herri - ZORNOTZA

> **SAGARDOA.** Euskal Herri osoan legez, Zornotzako Uxarte sagardotegian ere sagardo denboraldiari hasiera eman zioten, jai handia eginez. Jo-

se Antonio Zamalloa Uxarteko jabeak aurreratu zuen 2023ko uzta "negargarria" izan zela: "Berez, ez zen sagar urtea. Gutxi zetorren eta eguraldiak ehuneko ehun baldintzatu du. Sikate handia egin zuen. Iaz ez zuen ia euririk egin eta hego-haize erreak sagarrondoan uztarik gehiena hondatu du".

Nevadah-ren itzulera, hiru urteren ondoren

Kultura - DURANGO

> **MUSIKA.** Hiru urte eta erdi pasatu ostean, Nevadah musika taldeak oholtzetara itzulera egin zuen. Durangaldeko boskoteak teloa Pla-

teruena Kultur Aterpean altxatu zuen, urtarrilaren 28an, entzuleentzako sorpresa batez. Izan ere, itzuleragaz batera *Still goes on* lan berria ekarri zuten besapean, Berrizko Lorentzo estudioan grabatua. Beste nobedade bat, aurretiaz ezagutarazi zutena, abeslari berriarena zen: Ekhi Arrieta batu zitzaion laukoteari.



Jazarpena salatu dute Zornotzan

Herririk herri - ZORNOTZA

> **GIZARTEA.** Urtarrilaren 22an Zornotzako udal plaza txiki geratu zen herriko gazte batek jasandako jazar-

pena salatzeke. 30 bat gaztek Haitz izeneko 18 urteko gaztea —aniztasun funtzionala du— jazarri zuten. "Kale osoan zehar jazarri zuten, bere atzetik korrika eta irainka", familiako lagun baten berbetan. Plazan irakurritako mezua txalo zaparrada batez amaitu zuten.



IZURTZA
UDALA
Tel.: 946 813 548
www.izurtza.net



Durango emakumeen kartzelan errepresaliaturiko biktimei omenaldia

Erreportajea - DURANGO

> **GIZARTEA.** Durango Udalak, elkarrekin feministek eta memoria historikoa lantzen duten eragileek omenaldi ekitaldia egin zuten emakumeen kartzelan izandako biktimek gogoratzeko. Ekitaldia Nevers ikastetxearen aurrean egin zuten. Milaka emakume presok errepresio frankista gogorra

jasan zuten Durango emakumeen kartzelan. Bost emakume eta sei ume hil ziren bertan. Frankistek 1939tik 1940ra erabili zuten Durango emakumeen kartzela. Udalak "zor historiko bat" kitatu gura zuten horrela: "Herritarrak egunero-egunero pasatzen gara kartzela egon zen lekua-

ren ondotik. Garrantzitsua da aitortza", adierazi zuten Ima Garrastatxu alkateak. Julián Ríos alkateordeak emakumeen kartzela "ahantzuratik" ateratzeko deia egin zuten. Andreak elkarteko Isabel Iraurgik, bestalde, orain arte egindako memoria aritekak gogoratu zituen: emakumeen

kartzelari buruz Maria Gorosarrik Astola aldizkarian egindako ikerketa, Agurrik Gabeak 2021ean egindako ekitaldia emakumeen kartzela oinarri hartuta, eta Andreak elkartaren berbaldiak. Urtarrilekoak beste mugarri bat ipini zuten. Ekitaldian, lore eskaintza egin eta plaka bat ipini zuten kartzelan hildako emakumeen eta umeen izen-abizenekin. Bestek beste, Maria Gorosarri kazetari eta irakasleak, Leire Vargas idazleak eta Ixone Aroma dantzariak parte hartu zuten. Andreak eta Gerediaga elkarrekin ere izan ziren bertan.

Ezkurdi Jai-Alai frontoi eraberritua, zabalik

Kirola - DURANGO

> **PILOTA.** Durango Ezkurdi Jai Alai pilotaleku eraberrituak urtarrilaren 27an zabaldu zituen ateak. Estreinaldia zesta-punta eta pilota partidu pro-

fesionalek osaturiko jaialdi bigaz egin zuten, asteburu horretako barikuan eta domekan. Durango pilota eskolako eta Ezkurdi Jai Alai zesta-punta eskolako arduradunek pilotaleku eraberritua ezagutu zuten eta "pozik" agertu ziren. "Aldaketa handia da eta gustura gaude. Zorua itxura ona du eta probatzeko gogoz gaude", adierazi zuten pilota eskolako Txaber Zabalak.



Zorionak eta urte berri on!

FURESA
FUNDICION NODULAR



Beste lapurreta bat Berrizko Hiltegixen

Herririk herri - BERRIZ

> **GIZARTEA.** Berrizko Hiltegixe gaztetxean lau bider sartu ziren lapurretan hile gutxiren barruan. Urtarrileko lapurretan, alkohola ostegaz gainera sukaldeko txorrota zabalik utzi zuten. Ura beheko solairuan dagoen rokodromoraino heldu zen. Gaztetxeko kideek azaldu zuten "nazkatuta" daudela. Beste gaztetxe batzuetan eginiko lapurreta ere salatu zituzten.



'Txoria nuen maite' taberna zarratu dute

Herririk herri - DURANGO

> **GIZARTEA.** Txoria Nuen Maite taberna erreferente bat izan da Durangoko ostalaritzan. 1999ko abenduan zabaldu zuten Jon eta Ibon Petralanda anaiek, eta aurten eman diote amaiera tabernaren ibilbideari, urtea hasteagaz batera. Ziklo bat zarratu eta beste bat zabaltzeko ordua heldu dela erabaki zuten Petralanda anaiek: "Etapla bat bete dugu. Bizitza bakarra da eta beste gauza pila bat egiteko gogoia dugu".

Iker Bilbao alpinista hil da, Fitz Roy mendian

Herririk herri - DURANGO

> **EZBEHARRA.** Urtarrilaren 19an albiste txar bat heldu zen Argentinatik. Izan ere, Iker Bilbao mendizale durangarra Patagonian izandako mendi istripu batean hil zen. Argentina eta Txile arteko mugan dagoen Fitz Roy mendia eskalatu ostean, jaisten zebiltzala, elur-jausi batek Bilbao eta Amaia Agirre urnietarra harrapatu zituen; Josu Linaza igorretarrak ihes egin ahal izan zuen eta abisua eman zuen.



IV. Hirukoa gala, Kafezaleak taldearentzat

Herririk herri - DURANGO

> **KULTURA.** Berbaro Elkartek antolatutako IV. Hirukoa galan 18 hirukoteak parte hartu zuten. Kultura, musika, geografia, Durangaldea, pertsona famatuak... hainbat gairi buruzko galderei erantzun behar izan zieten parte-hartzaileek, eta baita paperezko hegazkina jaurtitzeko proba berezi bat egin ere. Hiru talderen arteko finalaren ondoren, Kafezaleak hirukotea izan zen garailea. Errigorako otzara bana eraman zuten etxera.



Abadiño Cycling taldea sortu dute

Kirola - ABADIÑO

> **TXIRRINDULARITZA.** Urtarrilaren 19an txirrindularitza talde berri bat aurkeztu zuten Gerediagako ermitaren inguruan: Abadiño Cycling Academia. 23 urtez azpiko emakumeen taldea da eta Eneitz Iturriaga eta Humberto Gómez dira talde berriko sustatzaileak. Orain bost urte UCI Women Team mailako Eneicat taldea sortu zuten. Iaz 4tik 14 urtera arteko umeei begirako Eneicat Abadiño eskola sortu zuten eta aurrera begira kadeteen eta juniorren taldeak sortzea dute helburu.



Ate irekiak urte osoan

BANAKAKO BISITAK
 Eskatu zure hitzordua:
 94 681 00 50 edo
sanjose@durangojesuitak.org
 (0 urtetik 18 urtera)

www.durangojesuitak.org •   



Pentsiodunen mugimenduak bost urte egin ditu pentsio duinen bidean

Erreportajea - DURANGALDEA

> **PENSIODUNAK.** Orain bost urte pasatxo, pentsiodunen mugimendua sortzen zebilela, ANBOTOK Durangaldeko ordezkariak elkarrizketatu zituen. Harrezkero, kolektiboak lorpen garrantzitsuak izan ditu. Hala ere, argi dute mobilizazioa dela bide bakarra aldarrikapen asko errealitate bihurtzeko.

Durangoko, Elorrioko, Iurretako, Zaldibarko, Berrizko eta Zornotzako elkarretarazteetan astelehenero pankartaren atzean jarraituko dutela adierazi zuten Jesus Aristegi Larrañagak, Mariapi Mintegi Zuazok, Matias Oregi Arregik, Mari Tere Alberdi Olabegoiak eta Itziar Madariaga Bilbaok.

"Pentsioen erreforma bat gainean dugu. Jendea esnatu egin behar da", adierazi zuten elkarrizketatuek martxoaren amaieran Espainiako Kongresuak onarturiko pentsio erreformari begira. Bost urteko ibilbidea erreparatu zuten eta "oso balorazio positiboa eta aberasgarria" egin zuten, "mugimendu heterogeneoa" osatzea lortu dutela azpimarratuta. Urteotako lorpenak ere aintzat hartu zituzten, tartean emakume pentsiodunei begira lorturikoa: "Alargunok senarraren pentsioaren %52 kobratzen genuen. Kostata, baina %60ra igotzea lortu genuen".



Amaiagaitik salto egin dute Zornotzan

Herririk Herri - ZORNOTZA

> **GIZARTEA.** Zornotzako familia batek eta Indarkan Agility klubak 'Amaiagaitik salto!' kanpainari ekin ziteon Amaia Araujoren gaixotasunari aurre egiteko. Umeak artogriposi anizkoitz kongenitua eta bihurtura-distonia ditu eta behar dituen osasun terapiak ordaintzeko funtsak batzea zuen helburu kanpainak.



Emakumeen pilota profesionalizazioaren bidean

Kirola - OTXANDIO

> **PILOTA.** Ainhoa Ruiz de Infante pilotari otxandiarrek hasiera ona izan zuen, Ados pilota enpresaren binakako txapelketan finalerdietara ailegatu zen eta. Ruiz de Infantek "hobekuntza handiak eta aurrerapausoak" aurkitu zituen enpresan. "Urte osoko kontratua dugu, urte osoan kotizatzen dugu eta aseguru dugu", esan zuen. Baina nabarmendu zuen profesionaltasunetik "urrun" daudela oraindino.





Hiru urte zabortegia behera etorri zenetik

▣ **Herririk herri** - ZALDIBAR

> **ZABORTEGIA.** Zaldibar Argitu plataformak deituta, otsailaren 5ean dozenaka lagun batu ziren Zaldibarko Eitzaga auzoan, Alberto Sololuze eta Joaquín Beltran gogoratu, Zaldibarko hondakindegia amiltzea salatu eta erantzukizunak argitzea eskatzeko. Izan ere, egunean bertan hiru urte bete ziren tragedia gertatu zenetik. "Gertatu behar ez zen eta ekidin zitekeen hondamendia izan zela argi geratu da", azaldu zuen Zaldibar Argitu plataformako Janire Lazkano kideak. Bizilagun batek krisiaren kudeaketa kritikatu zuen, besteak beste. "Hainbeste aipatzen duten auzolana hemen ez dugu aurkitu, ez auzokoentzat, ez kanpokoentzat; bakkarririk agintzaile eta agintari direnen onerako", esan zuen. Bertako auzokideak ez ahazteko eskaera ere egin zuten. "Gu gutxi gara eta hemen geratzen gara, zabortegiko kutsaduraren ondorioz ez nabaritzeko esperantzaz. Autobidetik zoaztenok ez ahaztu zelai berde polit horren azpian pozoin mordoa dagoela, eta, batez ere, ez gu ahaztu".



40 Minutu Rock bueltan da

▣ **Herririk herri** - DURANGO

> **MUSIKA.** Pandemiak beharturiko parentesiaren ondoren, 40 Minutu Rock jaialdia iazko otsailan bueltatu zen Durangoko Landako Gunera. Sarrera guztiak agortu ziren. Dena behar zen moduan irten zedin, lanean aritu ziren Anes Baños Madariaga, Aitziber Areitio

Iriondo, Aitor González Gutiérrez eta Andrea Aragón Acedo, beste boluntario ugariaren artean. Hiru urteko "geldialdi gogorra" izan zela azaldu zuten antolatzaileek, eta jaialdia antolatzearen arrazoia gogoratu zuten: "Azken hurbilketak oso berri ona dira, baina lanean jarraitu behar dugu euskal presoei bermatzen ez zaien eskubide asko dagoelako".



Itziar Larrinagak '3052' liburua euskaratu du

▣ **Kultura** - ABADIÑO

> **LITERATURA.** Mamadou Dia senegaldarrak Dakarretik Murtziara egindako bidaiaren testigantza batzen du *3052* liburuak, hiri biak banatzen dituen kilometro kopuruari erreferentzia eginez. Itziar Larrinaga abadiñarrak Dia eza-gutzeko aukera izan zuen, eta baita bere liburua ere. Diak bizitakoak hemen eza-gutzea garrantzitsua zelakoan, liburua euskaratu zuen.



'Irati' filma estreinatu dute Durangaldeko zinemetan

▣ **Kultura** - DURANGO

> **ZINEA.** Otsail amaieran Hego Euskal Herriko zinema aretoetara heldu zen *Irati*. Eneko Aristaren pertsonaiaren azalean sartu zen Eneko Sagardoy aktore durangarra. Paul Urkijo zinema zuzendariaren lana euskarazko proiekturik anbiziotsuenetarikoa da eta fantasiako zaleen artean ez ezik, ikusmin handia sortu zuen zinemazaleen artean ere, orokorrean. Estreinako asteburuan Durangoko Zugaza aretoan eman zuten, eta martxoan zehar Elorrion eta Zornotzan. "Ikusleak gustura geratzen ari dira eta hori oso garrantzitsua da guretzat", adierazi zuen Sagardoyk, eta gehitu zuen: "Pelikula guztiak dira zinema aretoetan ikustekoak, baina 'Irati' oraindino gehiago".



ikastolenelkartea



www.ibaizabalikastola.eus



www.kurutziaikastola.eus

Derrigorrezko Hezkuntza Batxilergoa Lanbide Heziketa



- HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA ETA DBH
- BATXILERGOA
- GIZARTERATZEKO GOI TEKNIKARI TITULUA
- HAUR HEZKUNTZAKO GOI TEKNIKARI TITULUA
- ETENGABEKO FORMAZIOA: IKASTAROAK



Maite Gorrotxategi, mundua zeharkatu zuen erraketista profesionalari omenaldia

Kirola - DURANGO

> PILOTA. Otsailean, Durangoko Udalak Maite Gorrotxategi Potente erraketista ohia omendu zuen. Hamalau urte gaz, Gorrotxategi Ermutik Bartzelonara joan zen profesionaletan jokatzerara. Sasoi hartan eginiko lana aitortu zioten omenaldian. Eskua harro altxatuta agurtu zituen ikus-entzuleak, kantxak sekula utzi ez balitu legez. 1940ko hamarkadan hasi zuen bere ibilbide

profesionala. "Maritxiko" batzuk ginelana esaten ziguten, hobeto geundela etxean bordatzen. Emakumeak ezin ginen protagonistak izan, kontrakoa baino. Alde horretatik, erraketistak aitzindariak izan ginen, zaletasun handia genuen eta", esan zuen Gorrotxategik. Bartzelonako aroa gogoratu zuen: "Jokoan arreata handia ipintzen genuen. Bulegotik begira geneuzkan

eta joko-maila jaitsiz gero deitu egiten ziguten. Profesionalak ginen". Esperientzia errepikatuko lukeela gaineratu zuen, eta ibilbidea gogoratu: "14tik 19 urtera arte egon nintzen Bartzelonan. Frontoiak zarratzerakoan Mexikora joateko proposamena egin ziguten, baina ezetz esan nuen. Logroñora joan nintzen eta hura ere itxi zutenean Ermura bueltatu nintzen".



Iker Salazar, Zornotza ST-ren historiaren parte

Kirola - ZORNOTZA

> SASKIBALOA. Iker Salazar Zornotza ST-ko historiara pasatu zen otsailean. Beste inork baino gehiago jokatu du kamiseta berdeagaz: 6.000 minuturen langa gainditu zuen. Etapa bitan, zortzigarren denboraldia osatu zuen klubean. Baina Salazar ez dago horri begira: "Estatistikei ez diet arreata berezirik ipintzen, baina ilusioa egiten du, apurka bidea egiten nabilen erakusgarri delako". Bigarren etxea du Zornotza: "Gustura nago hemen. Etxean baino denbora gehiago ematen dut hemen. Taldekideak baino gehiago, lagunak dira. Gainera, Mikel Garitaonandia, entrenatzailea, aspalditik ezagutzen dut". Zornotza STk hamarkada bat darama Saskibaloiko Zilarrezko Ligan, eta Zilarrezko Kopa ere irabazi zuen 2021-2022 denboraldian. Salazarrek lorpen horiek guztiak baloratu zituen. Bere esanetan, talde txiki eta umil bat hainbeste denboran Zilarrezko Ligan egotea datu ikaragarria da eta lan handia egin den seinale.

Patxi Jaka gudariaren gorpuzkiak berreskuratu ditu haren familiak

Herririk herri - ZORNOTZA

> MEMORIA HISTORIKOA. Nekane Jaka Etxebarriak (Etxano, 1936) eta bere familiak galdera bakar bat izan dute azken 87 urteotan: "Non dago aita?". Patxi Jaka Bikandi tropa frankisten kontra borrokatu zen Eusko Gudarosteagaz. Zabalbide batailoiko kide izan zen eta

haren familiak arrastoa galduta izan du zortzi hamarkadatan. Aranzadi Zientzia Elkartearen lanari eta Gogoraren bertartekaritzari eskerrak, Nekane Jakak bere aitaren gorpuzkiak berreskuratu zituen otsailean. Patxi Jaka Bikandi milizianoaren arrastoak Gamiz-Fikan

topatu zituzten, bertako Lander Mella bizilagunak emaniko testigantzari eskerrak. Mellaren aitak esaten zion gerran hildakoen gorpuak baserriko lurretan zeudela. Beti zebilela hori burutik kendu ezinda. Aitita hildakoan, Mella Aranzadigaz hartu-emanetan ipini zen eta hauek ikerketa hasi zuten. Nekane Jakak poz itzela hartu zuen: "Pozik nago, pozik eta harro. Orain arte ez dut aitarik izan. Ni jaioberria nintzela desagertu zen aita, hamaika hilabete nituela. Eta, jakina, ez dut haren akordurik", esan zuen.





**TXINTXIRRI
ELORRIKO
IKASTOLA**

San Pio, 3
ELORRIO
Tel.: 946 582 261
elorrrio@ikastola.eus

ERROETATIK, ORRI BERRIETARA

www.elorrikoikastola.eus

Ateak zabalik dituzue, etorri eta ezagutu gaitzazue!












Iker Unzueta, sasoian dagoen golegilea

Kirola - ABADIÑO

> **FUTBOLA.** Iker Unzueta abadiñarrak denboraldi ona osatu zuen SD Logroñes taldeagaz, eta Lehenengo Federazio mailako golegilerik onenen artean zen otsailean, ordurako zortzi gol sartuta. Bere lan onak Portugaleko lehen mailan dabilen FC Vizela taldearen arretea deitu zuen, eta talde portugaldarrak Unzueta fitxatu zuen udan.

Zesta-punta elkarte berri bat sortu dute Durangon

Kirola - DURANGO

> **ZESTA-PUNTA.** Durangon zesta-punta elkarte berria sortu zuten otsailean. Ezkurdi Jai Alai. Iñigo Aldekoa-Otalaria, Pedro Mari Garcia eta Gudiker Alberdi elkartearen sorreran egon ziren lanean: "Frontoi eraberrituagaz eta orokorrean zesta-puntak bizi duen birjaiotze momentuagaz, zesta-punta munduan ibilitakoak garen hainbat lagunek klub hori txiki geratu zela ikusi genuen". Durango erdigune bilakatuta, Ezkurdi Jai Alairen helburua "jaialdiak herririk herri antolatzea eta zesta-punta herri txikietara hurreratzea" dela azpimarratu zuten elkartearen sortzaileek elkarrizketan. Ekainera arte, lehengo elkarte ibili zen Durangoko zesta-puntaren gidaritzapean, eta harrezkero dabil lanean talde berria.



Klarinetea lagun, Europako musikak ezagutzen

Erreportajea - DURANGO

> **MUSIKA.** "Dedikazio berezi bat da. Musikaria izatea lanbide bat baino gehiago da niretzat. Bizi proiektu bat da". Horrela laburbildu zuen bere lana Elena Arbonies klarinetista durangarrak. Durangoko Bartolome Ertzilla

musika eskolan klarinetea ikasten hasi zenean ez zuen imajinatu ere egiten musikak bere bizitzan beteko zuen espazioa hain handia izango zenik. Otsailean, Arbonies Europako musikaririk onenekin ikasten eta esperimentatzen, eta musika garaikidean zentratutako ibilbidea lantzen ari zen. Graz (Austria) eta Viena arteko joan-etorrietan, bigarren masterra amaitzen zebilen.

Munduko gizonik indartsuena, Abadiñon

Akuihua - ABADIÑO

> **HERRI KIROLAK.** Martins Licis kaliforniarraren eta Urdax Magunazelaia abadiñarraren arteko norgehiagokak ikusmin itzela piztu zuen Abadiñon otsailaren 5ean. Licisek, 'Munduko Gizonik Indartsuena' txapelketa irabazita, indarra aldean zekarren. Bestalde, Urdax Magunazelaia bere marka ho-

betu gura zuen. Licisek 252 kiloko harria altxatu zuen eta Magunazelaiak 255 kiloko harria, birritan. AEBetako atletak probalekuan bizitakoa "izugarria" izan zela azaldu zuen: "Probalekua hain beterik ikusita, kirolagazko maitasuna sentitu zitekeen". Magunazelaia pozik agertu zen Licisen bisitaz: "Bera lako pertsona bat gugaz entrenatzen egotea eta Euskal Herria eta gure kirolak hainbeste gustatzea oso pozgarria da. Gainera, mundu mailan ezagutarazi gaitu".



ANDRAMARI

ZORNOTZAKO IKASTOLA

TXIKIAK HANDI EGITEKO HEZKUNTZA OSOA

Larrea Auzoa z/g
48340 Amorebieta-Etxano

**0 eta 1 URTEKO MATRIKULA
URTE OSOAN ZABALIK**



Eskatu bisita



946732950

zornotza@ikastola.eus



www.andramarizornotzakoikastola.eus



andramari_zornotzaikastola



"Sistemaren erdigunean zaintza ipintzea beharrezkoa da bizimodu bizigarriak sortzeko"

ERREPORTAJEA - DURANGALDEA

> **FEMINISMOA.** Iazko martxoaren 8an mugimendu feministak zaintza sistema iraultzeko dinamika ipini zuen martxan. "Denon Bizitzak Er-

digunean" izeneko txostenean batu zituzten harrezkero egin beharreko lanketak. Nerea Lizarralde Sampedro Dominika Talde Feministako kideak

eta Itsaso Basauri Larrañaga Elorrioko Mugimendu Feministako kideak zaintza erdigunean ipintzeko hasi duten dinamika azaldu zuten: "Kulturalki, emakumeari ezartzen zaio eguneroko zaintzarako rola. Zaintzaren kultura eraldatu behar dugu; azken finean, zainketa jasotzeko eskubidea dugun moduan besteak zaintzeko betebeharra ere badugulako. Baina hau guzti hau nukleo familiarretatik kanpora ere landu behar da", azaldu zuen Lizarraldek. "Zaintzak oinarri handi bat izan behar du instituzioetan, zerbitzu publikoetan. Zaintza zerbitzu publikoak zelan josten ditugun aztertu beharko da, komunitateak zelan eratu gura ditugun aztertu eta zaintza erdigunean izango duen sistema berri bat diseinatu", gaineratu zuen Basaurik. Euskal Herriko mugimen-

du feministak greba orokor bat antolatzeke bidea hasi zuen martxoaren 8an, "zaintzarako eskubide kolektibo baten alde" eta "pertsona guztiek bizitza osoan zehar zaintza baldintza duintan eta konpromisotik emateko eta jasotzeko duten eskubidearen alde". Aurrerago iragarri zuten azaroaren 30ean izango zela greba orokor hori. Iragarri zuten greba "herri mugimenduekin, mugimendu sozialekin eta sindikatuekin" aliatuta egingo zutela. Zaintzaren "merkantilizazioa", "pribatizazioa" eta "esplotazioa" salatu zituzten. Baita etxe barruko enpleguaren "erregimen matxista, arrazista, sexuala eta koloniala" ere. Horren aurrean, zaintza "eskubide kolektibo" izateko aldarria egin zuten, "gaur egun, ez zaintzea pribilegioa" dela iritzita.

Lipovenar-errusiar komunitatea Zornotzan

Herririk herri - ZORNOTZA

> **GIZARTEA.** Jatorri errumaniarra duen jende dezente bizi da Zornotzan. 831 lagun, hain zuzen ere. Zehatzago esanda, eta komunitateen historian arakatzuz, Errumaniatik Zornotzara etorri zirenetariko askok jatorri errusiarra dute. Zornotzan jatorri lipovenar-errusiar komunitate zabala dago eta Juravca kultur elkartean batzen da. Bertako Veronica Condrat kideak Zornotzako komunitatearen sorreraz berba egin zuen: "Normalagoa da ezagun bat duzun tokira joatea, eta gure kasuan ere horixe gertatu zen".



Gazteak nekazaritzara erakartzeko proiektua

Herririk herri - BERRIZ

> **NEKAZARITZA.** 2022ko urrian, Urkiola Landa Garapenak ortugintza bultzatzeko eta nekazaritza ekoizle berriak topatzeko programa bat ipini zuen martxan: Haztegia. Hori dela eta, lur arlo bat atondu zuten Eituan, Berrizen, ortugintzan hasi gura zuten ekoizleek bertan garatu zituzten euren enpresa proiektuak. Nekazaritzarako beharrezkoak diren azpiegitura guztiak eskaini zituzten: berotegiak, makinak, erremintentzako txabola eta biltegia. Negutegiak, adibidez, atonduta zeuden eta 2022a amaitu aurretik gehiago ipini zituzten. Horrez gainera, ekintzaileek nekazaritza ekologikoan aditua izango zen pertsona baten aholkularitza zerbitzua eta formakuntza saioak izango zituzten. Erronka argi batez: gazteria lehen sektorean lan egitera bultzatzea. Martxoan egin zuten proiektuaren aurkezpenean, ekimenean jardungo zuten gazte bik parte hartu zuten. Jon Berasaluze durangarrak 25 urte ditu. Ander Zorrakin elorriarrak 23. Baserri kooperatibetan lan egindakoa da Berasaluze, eta basozaintzari eta landa-eremuari loturiko ikasketak ditu. Zorrakin Ingurumen Zientzietako unibertsitate gradua amaitzen zebilen orduan, eta ortugintza arloan egin zituen praktikak. Beraz, ika-



sitakoak lan esparrura eramán zituzten, ortugintza ekologikoan trebatu eta lan horretatik bizitzeko enpresa proiektu bat garatuta. Ortugintzak duen "praktikotasunak" eramán zuen Ander Zorrakin proiektua hastera. "Lan honek duen praktikotasunak eta lehen sektoreak behar duen bultzadak eramán ninduten proiektu honetan izena ematera. Kanpoko herrialdeetan ekoizten diren produktuen dependentsia handia dugu. Horrek kalteak dakartza ingurumenean. Asko maite ditut natura eta ingurumena, eta

proiektu honek aukera bat eskaintzen dit nire bizitza kalterik eragin barik aurrera ateratzeko", azaldu zuen aurkezpen saioan. Jon Berasaluzek antzeko iritzia eman zuen: "Durangaldean eragozpen ugari dago lehen sektoretik bizitzeko. Proiektu honen berri izan nuenean, egundoko egitasmoa zela ikusi nuen. Horrelako gehiago behar dugu lehen sektoreak aurrera egin dezan. Gazteriak belaunaldi erreleboa ekarri behar du, eta proiektu honek horretan laguntzen du".



"Afrikan ere emakumeak aspalditik dabilta eskubideen alde eta kargu inportanteetan borrokan"

Herririk herri - IURRETA

> **BERDINTASUNA.** Abi Datouk 14 urte daramatza Iurretan bizitzen, Mariam Traorek 19 Elorrión, eta Rokiatou Doucourek 10 Durangon. Hirurak Afrika mendebaldeko Mali herrialdekoak dira. Traore Euskal Herriko malitarren kultur elkartereko presidentea da eta beste biak kideak dira. Martxoaren 18rako hainbat ekintza antolatu zuten Iurretan. "Oraindino asko dago egiteko. Baina, apurka, emakumeak geroago eta independenteagoak dira. Ez dira etxean geratzen. Komertzioetan eta administrazioan postuetan lan egiten dute, eta ikasketak egiten dituzte. Beraz, pausoak ematen dabilta, beste toki batzuetan lez", azaldu zuten.

*Durangaldea
bizi eta ezagutu!*

**Toki Garapena, Hondakin bilketa, Gizarte Zerbitzuak,
Euskara, Kirolak eta Kontsumo bulegoa**

ABADIÑO · ATXONDO · BERRIZ · DURANGO · ELORRIO
GARAI · IURRETA · IZURTZA · MAÑARIA · ZALDIBAR

www.dma.eus

Juan Uribe omendu dute Durangoko bonbardaketaren 86. urteurrenean

▣ **Herririk Herri** - DURANGO

> **BONBARDAKETA.** Martxoaren 31n, Durangoko bonbardaketan hildakoak gogoan izan zituzten Andra Marian egin zuten oroimen ekitaldian. Urteurrenean, Juan Uribe 96 urteko durangarra omendu zuten. Hamar urtegarazi bizi izan zuen bonbardaketa. Uribek honela gogoratu zuen bonbardaketaren momentua, detaile eta guzti: "Cornelioren txaletean egon nintzen, gaur egun ertzean etxea dagoen lekuan, aitagaz soloko goldaketan, bertan patata ereiteko

gero. Aireplanoaren zarata entzun eta gora begiratu nuen. Aitari esan nion paperak botatzen zebiltzala, baina aitak esan zidan bonbak zirela. Arineketan arbola azpitan ezkutatu ginen, eta bin-baun hasi ziren bonbak. Behiak hartu eta etxera joateko esan zidan aitak. Nire arreba Feliren bila joan zen. Etxera bidean, behiekin Kurutziaga hotelaren ingurura joan nintzen. Hildakoak ikusten hasi nintzen". Tragediatik ihes egitea ez zen erraza izan berarentzat, hainbat

soldadurengandik ihes egin behar izan zuen eta: "Bonbardaketaren biharamunean Oromiñora eraman ninduten, amama eta osabak han nintuen eta. Handik bueltan, erreketek kainonazoka hasi ziren estazioan. Tren bat prest zegoen eta hara sartu nintzen. Bilbon bajatu nintzen. Soldadu batzuek ezagutu egin ninduten. Egun bi geroago, aita bila etorri zen. Ordurako Karrantzan zeuden errefuxiatuta. Handik Torrelavegara joan ginen".



Gazte Topaguea Elorriora bueltatu da, 20 urteren ondoren

▣ **Herririk herri** - ELORRIO

> **GIZARTEA.** Hogeitau urteren ondoren, Gazte Topaguea Elorrioren egin zuten berriro. Orainaren eta bizitzeko modu baten aldeko aldarria egin zuen Ernaik, eta, horretarako, milaka gazte batu zituen eskualdean. Ernaiko militanteak diren Jone Urizarbarrenagaz eta Jon Ormaetxeagaz berba egin zuen ANBOTOk. "Apu bat urduri", baina "gogotsu" zeuden aurrean zeukaten erronkagaz. "Egungo gizarte ereduak eta neoliberalismoak indibidualiziora garamatzate, bakoitzak bere buruarengan bakarrik pentsatzera. Horregaitik, etorkizuneko bestelako Euskal Herri bat proposatzen dugu guk, independentea, sozialista eta feminista, balio komunitarioetan oinarritzen dena", esan zuen Ormaetxeak. Urizarbarrenak Topaguea Elorrioren egiteari buruz mintzatu zen: "Aurrera jarraitzen dugula erakusteko aukeratu da Elorrio, nik uste; zer izan ginen eta zer garen erakusteko. Jende nagusia orain dela hogeitau urteko topagune hori berriro gogoratzeko joango da. Badu bere ikutu nostalgikoa ere".



'Trenak ekarritakoak' lana ondu dute

▣ **Erreportajea** - DURANGALDEA

> **GIZARTEA.** Txelu Angoitiaren *Trenak ekarritakoak* dokumentala estreinatu zuten martxoaren 24an; protagonistariko batzuek dokumentalaren nondik norakoak aletu zituzten ANBOTOrantz. Celsa Rodríguez, María Alarcón, Antonio Toledo eta Eneka Irigoras batu ziren solasaldira. Denek ezagutzen dute elkar, baina bakoitza istorio eta leku desberdinetatik ailegatu zen Durangaldera. "Hemen, parte hartu duten guztiek egin dute euren ekarpena, bakoitzak bere

ikuspuntutik", azpimarratu zuen Angoitiak. "Zauriz eta aurreiritziz beteriko gaia da, baina beharrezkoa da horrelako gaiez hitz egitea; zorionez, hori normaltzen ari da", azaldu zuen Jon Maia bertso-lariak *Trenak ekarritakoak* dokumentalaren aurkezpen agerraldian. 1950eko eta 70eko hamarkadetakoko migrazio mugimenduek Durangon izandako eragina erakusten du dokumentalak, horretarako bederatzi protagonista batuta. Lan honetarako, Angoitiak Durangoko Arte eta Historia museoa elkarriketatu zituen protagonistak. "Fenomeno honetako protagonistak islatuta ikusten badira, arrakastatsua izango da", esan zuen Angoitiak.



Okm: *batzen gaituen* *distantzia*

Egin zaitez anbotokide!

 **anboto**
kide

Ana Maiztegi eta Amagoia Iturralde: Zaldibartik Saharara, elkartasun eta zaintza sare baten testigantza

Herririk herri - ZALDIBAR

> GIZARTEA. Ahmed Salama Salahi ume sahararrak Zaldibarko familia baten bizitza aldatu zuen 2002an. Giltzurruneko gaixotasun batez etorri zen Durangaldera uda pasatzera, eta Zaldibarko familia batean geratu zen. Giltzurrun transplantea egin zioten txikitari, eta pandemia sasoiari beste transplante baten zain zegoen. Bat-batean, bere osasun egoerak okerrera egin zuen eta hil egin zen. Kolpe gogorra izan zen bere familia eta lagunentzat, bai Zaldibarren eta baita Saharan ere. Urtebete pasatuta, Ahmeden bizitzan garrantzitsuak izan ziren emakume bi elkartu zituen ANBOTOK. Ana Maiztegi, haren Zaldibarko ama, eta Amagoia Iturralde irakaslea. "Guretzat seme bat izan da. Oso formala. 2002an etorri zen gure etxera", gogoratu zuen Maiztegi; "Eskolara

etorri zenekoa ondo gogoan dut. Mutiko txikitxoa zen eta oso kolore eskasoa zuen, gris kolorea nabaritu nion. Atentzioa eman zidan. Gero infartua izan zuen eta zerk eragin zion ulertu genuen. LH 3. mailara etorri zen eta sasoi hartan beste irakasle bat zuen. Hurrengo urtean nire ikaslea izango zela banekenez, urte hartan Saharara bidaiari lagundu nion Anari, bisita egitera", gaineratu zuen Iturraldek. Horrez gainera, saharar herrian bizi duten errealitatea ezagutu zuten biek: "Orain 23 urteko egoeratik gaur egungora alde handia dago. Orain ura eta argia dituzte. Baina elikagaietan eskasia handia igarri dugu. Lehen, nazioarteko laguntza heltzen zen. Orain, geroago eta gutxiago. Desnutrizioa ikusten da ume zein helduengan", adierazi zuten kezka Maiztegi eta Iturraldek.



Umorea Hitzez eta Ahotsez irakurraldian, Durangon

Kultura - DURANGO

> LITERATURA. Apirilean aurkeztu zuten Hitzez eta Ahotsez literatur irakurraldiaren bederatzigarren edizioa Durangon. Asmoa lehenagotik ere bazegoen arren, ekimeneko taldekideek bederatzigarren ediziora arte itxaron zuten umorea gai lez aukeratzeko. Antolatzaileek "gustura" amaitu zuten.






Smurfit Kappa

Central Forestal




+55 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAINTZEN



Smurfit Kappa

Nervión



Zabalarran abesti berriaren bideoklipa grabatu dute Pirritx, Porrotx eta Marimototsegaz

Herririk herri - DURANGO

> **HEZKUNTZA.** Zabalarra eskolako gurasoen elkarteko euskara batzordeak eta eskolako komunitateak ekimen berri bat hasi zuten orain pare bat ikasturte: eskolako kideen artean ezaguna den kamiseta berdeak barneratzen dituen eskolako balioak eta euskara sustatzeko abesti bat sortzea. Harrezkero, hainbat ekimen egin dute helburu horregaz.

Martxoan abestia grabatu zuten, eta apirilean Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak Zabalarran egon ziren abestiaren inguruko bideoklipa grabatzen. Eskolako ikasleekin ere egin zituzten grabazioak. Abestiaren izena *Zabalarra*ko *zapaburuak* da. Ekainaren 1ean emanaldi bi egin zituzten Plateruenean, abestia eta bideoklipa estreinatzeko.



Yaiza Romero, Espainiako txapeldunorde apnean

Kirola - ZORNOTZA

> **APNEA.** Yaiza Romerok itsasoa du bere inguru naturala. Urpeko arrantzan espezialista da. Espainiako txapelketan parte hartu zuen Euskadiko selekzioagaz, Oviedon, eta txapeldunorde geratu zen apnean. Romeo pozik agertu zen emaitzagaz: "Pozarren nago egindako lanagaz. Espainian maila ikaragarria dago apnean, eta banekien dominak irabaztea oso gatxa izango zena". Hori gutxi balitz, 2021ean Finlandian izan zen Europako txapelketan laugarren

egin zuen; haren ondoren, Tunisian izandako Euroafrikako txapelketan parte hartu zuen, eta iazko irailean Laredoko munduko txapelketan ere parte hartu zuen zornotzarrak. Neguan, itsaso zakarra egoten den urtarotan, itsaso igerilekuagaitik ordezkatu eta han praktikatzen du apnea kirola. Apnean hainbat modalitate dago, baina denak bat datoz ezaugarri batean: ur azpian arnasarik hartu barik ahalik eta denborarik gehien igaro behar da.

ZALDIBAR ELIZATEKO UDALA
Tel.: 946 827 016
www.zaldibar.eus





Hogeita hiru urteren ondoren, Quattro Clavos talde zaldibartarrak azken kontzertua eman du, zauria ixteko asmoagaz

 **Kultura** - ZALDIBAR

> MUSIKA. Orain 24 urte zaldibartar zauri bat osatzeko asmoz eta ziklo bati amaiera emateko gogoz, Quattro Clavos talde zaldibartar mitikoak azken kontzertua eman zuen apirilean. 2000. urtean, Joserra Garitaonandia talde-

ko bateria-jotzailea moto istripuan hil zen eta gertaera horrek bat-batean eten zuen sasoi beteaz zegoen taldearen jardura. "Europar hilabeteko bira egitetik gentozen eta Zaldibarren bertan oso kontzertu potentea prestatzen genbiltzan. Hertzainakeko 'Gari'-k (Iñaki Igon Garitaonandia), Reincidenteseko Jose Luis Nieto 'Selu'-k, Iñaki Anton 'Uoho'-k, 'Fito' Cabralesek eta Extremoduroko 'Robe'-k parte hartu behar zuten", azaldu zuen Javi Garitaonandia taldearen sortzaile, baxu-jotzaile, abeslari eta Joserra zenaren anaiak. Orduan sartuta eduki zuen baxua zaldibartarrak. "Niretzat dena amaitu zen, maila pertsonalean, talde lez... Egunero geratzen ginen entseatzeko, berbetako, zerbait hartzeko... kolpe handia izan zen", adierazi zuen. 2021era arte. Izan ere, Garitaonandiak azaldu zuenez, Iratxe Mendiolaray kideagaz berba egin zuen itzulerari buruz, baina Mendiolaray gaixotu eta hil egin zen. Orduan erabaki zuen baxua berriro hartu eta abestiak berreskuratzea. Hamabi urteko ibilbideari merezitako agurra eman zioten, Ondarroako (Bizkaia) Beikozini aretoan. "Neure buruari eta jarraitzen gintuen jende guztiari zor diot", borobildu zuen Garitaonandiak. Quattro Clavosek hiru lan luze eta elepe bi kaleratu zituen.



Berokuntza sistema berria Mallabiko eskolako gimnasioan

 **Herririk herri** - MALLABIA

> AZPIEGITURA. Mallabiko Udalak aerotermia bidezko berokuntza- eta hozte-sistema berria ipini zuen eskolako gimnasioan, berokuntza-sistema "eraginkor eta iraunkor bat" emateko helburuagaz, udaleko iturriek adierazi zuten. Sistema honek kontsumoa eta CO2 emisioak murriztuko zirela adierazi zuten udaletik: "Gainera, energia iturri agortezina erabiltzen du, airearen ingurumen energiaren %77 ere doan ateratzen duen teknologia garbia delako". Eraginkortasun handiko etiketa energetikoa duen instalazioa ipintzeko, 23.070 euroko inbertsioa egin zuten. Zati bat Eusko Jaurlaritzako diru laguntza bidez finantzatu zuten.





Pornografiari buruzko berbardia Durangon

Herririk herri - DURANGO

> HEZKUNTZA. Jose Luis García psikologo eta sexologoak pornografiari buruzko berbardia eman zuen apirilean, San Agustin kultur gunean. Eduki sexual porno-biolentoek ume eta gazteengan duten eraginaz ohartarazi zuen: "Ezelango hezkuntza sexualik ez badago eta Internetarako sarreraren kontrolik ez badago, arriskuak oso handiak dira". Horrez gainera, gazteen arteko konduktak ez ezik emakume helduen artean ere bizi duten errealitateetarikoa bat mahaigaineratu zuen adituak: "Aplikazioak erabiltzen dituzten emakume askok biolentzia sexuala salatzen dute. Kondukta horiek pornotik atera dituzte eta erotizatu egin dira. Biolentzia erotizatzea oso arriskutsua da. Ezin dugu onartu gure gazteak sexuaren ideia biolento horregaz heztea". García aditua da gazteen eta umeen artean pornografiaren kontsumoak duen eragina aztertzen. Hainbat liburu kaleratu du gaiaren inguruan. Durangoko Udalak eta Kurutzia ikastolak gonbidatuta eman zuen San Agustin kultur guneko berbardia.

Sarek etapa berri bati ekin dio

Herririk herri - DURANGO

> POLITIKA. Sarek amaitutzat eman zuen euskal presoek sakabanaketa. Ziklo bat zarratu eta aro berri bat hasi zuen presoek etxeratzeari begira. Apirilean, Durangon berbardia eman zuten orduko egoera juridikoa zein zen azaltzeko. Miren Erdoiza Durangoko Sareko kidea da, eta beste hainbat kideguz batera berbardia antolatzen ibili zen. Bego Atxa Sareren bozeramailea da eta bera arduratu zen berbardia gidatzeaz. Sakabanaketak presoek arrasto handia utzi diela azaldu zuen Atxak: "Salbuespen legedia dela eta, espetxe zigorrak bizi osorako kondenen parekoak dira. Bestalde, Erdoizak Durangoko egoera azaldu zuen: "Euskal Herriko egoeraren argazki guztiz erakusgarria da. Zortzi preso daude: bat baldintzapeko askatasunean dago, beste bat hirugarren graduan, eta beste bostak albuespen legedien menpe".



Gazteen artean banakako arreta psikologikoa sustatzeko psikobonuak eskaini dituzte Durangon

Herririk herri - DURANGO

> OSASUNA. Durangoko Udalak, Bizkaiko Psikologia Elkargoaren laguntzagaz, osasun mentalean eragiteko lankidetzara programa "aitzindaria" ipini zuen martxan. 2.222 bonu kaleratu zituzten 14tik 35 urtera bitarteko gazteei psikologoarenera joaten laguntzeko. Ima Garrastatxu alkateak honako testuinguru honetan kokatu zuen egitasmoaren oinarria: "Pandemiaren eraginez, antsietateak, depresioak eta hala-ko gaitz psikologikoei gora egin dute, gazteen artean batez ere. Ondorio kaltegarri hauei ahal den neurrian aurre egiten laguntzea da helburua", azaldu zuen. Udalak 100.000 euro ipini zituen egitasmorako. Programa honetan par-

te hartu zuen psikologoetarikoa bat Mainer Del Río izan zen. Hauxe esan zuen: "Edozein bizi prozesutan 15etik 29 urtera arteko adin-tartea oso garrantzitsua da. Esperientzia eta aldaketa ugari bizi dugu. Aldaketa eta esperientzia horiek hazkunderako aukerak edo hastapen traumatikoak izan daitezke. Ildo horretan, modu prebentiboan landu ezean ez dugu aldaketei aurre egiteko osasun mentalik izango. Batzuetan ez da zertan arazo larri bat egon. Zenbait egoerak eragin dezakete gure osasun mentalean; selektibitate probak, adibidez". Udaleko María Villar gizarte teknikariak zehaztu zuenez, Bizkaiko Elkargoko 15 psikologok parte hartu

zuten programan: "Lehenengo kontsulta izan ondoren, psikologoek eurek ikusiko dute zenbat psikobonu behar duen gazte bakoitzak", adierazi zuen Villarrek. Azkenik, osasuna eskubide bat dela gogoratu zuen Del Río psikologoak: "Egin dezagun osasun mentala ere eskubide unibertsal eta demokratikoa, denontzako eskubidea. Askotan ahalegin ekonomiko handia da psikologoarengana joatea".





Elorriko udala

Elorri urtes osoko Turismoa

Herriko Plaza, 48230 Elorrio (Bizkaia) · Tel.: 94 658 712

www.elorrioturismo.eus



Abadiñoako euskal ezkontzan sexu bereko bikote batek antzeztu du ezteia lehenengoz

Herrikerik herri - ABADIÑO

> **EUSKAL EZKONTZA.** Abadiñoan euskal ezkontza tradizionalak zelakoak ziren gogoratzen dute lau urterik behin. Kalea eszenatoki bihurtuta, aktore bihurturiko herritarrek orduko ezkongaien ezkon eguna irudikatzen dute. Aurtengo aldia berezia izan da, sexuaren eta generoaren ikuspegitik harresi batzuk eraitsi dituelako. Alde batetik, sexu bereko bikote batek antzeztu du ezteia, lehenengoz: Ekaitz Herrera Azkarraga abadiñoarrak eta Koldo Rodriguez Akarregi lekeitiarrak. Bestetik, orain arte gizonezkoenak ziren paper batzuk emakumeek antzeztu dituzte: alkatearena, notario lanak egiten zituena... Euskal ezkontzako ezkongaiak izateko proposamena jaso zutenean, baiezkoa ematea erabaki zuten biek, hartu-emanak bizitzeko era asko dagoela erakustea garrantzitsua iruditzen zitzaielako. "Berez,

herritarren aurrean ikusgai egote horrek ez digu grazia berezirik egiten, baina proposamenagaz aurrera egitea pentsatu genuen, geure komunitateagaitik, LGTB komunitatea bibileago egiteagaitik, eta hartu-eman ereduak askotarikoak izan daitezkeela erakusteko", adierazi zuen Rodriguezek euskal ezkontzaren bezperan eskainiriko elkarrizketan. Herrerrak ikuspegi horretan sakondu zuen. "Ezkontzaiak geu izango gara, baina gurea adibide bat baino ez dela jendarteratu gura dugu, hartu-emanak ulertzeko modu ugari dagoelako. Bikote heterosexual arautu horretatik kanpora era askotako hartu-emanak daudela aldarrikatu gura dugu. Badiira hartu-eman itxiak, irekiak, adin tarte desberdinetakoak, genero definiturik bako gorputzak, bakarrik bizi direnak, bananduriko bikotea, hirukotea... jendartea oso anitza da".



"Angurreta naturan arteaz gozatzeko espazio magiko bat izatea gura dugu"

Herrikerik herri - MAÑARIA

> **ARTEA.** Durangaldeko hainbat artistaren ekimenez, Mañariko Angurreta harrobi abandonatuari bigarren bizi bat eman zioten 2021ean, eta Angurreta Harrobia arte espazioa sortu zuten han. Harrezkero, kontzertu bat baino gehiago antolatu dute bertan. Bestalde, aurtengo maiatzean Tadanori Yamaguchi artista japoniarren lanak aurkeztu zituzten

espazio horretan. Victor Arrizabalaga proiektuaren sustatzaileak Angurretagaz zer lortu gura duten azaldu zuen: "Harrobi hau espazio magiko bat izatea gura dugu, naturan arteaz gozatzeko. Eta, ahal bada, lagunekin. Hemen ekitaldiak antolatzen diren neurrian, aisialdirako alternatiba bat izan daiteke. Proiektu honegaz amets bat egia bihurtu da".



MALLABIKO UDALA
Tel.: 943 171 461
www.mallabia.eus





Musika eskolak 40. urteurrena ospatu du

► **Kultura** - DURANGO

► **MUSIKA ESKOLA.** Iker Ruiz de Alegriak bigarren ikasturtea darama Bartolome Ertzillako zuzendari. Lur hartu eta lanean hasteagaz batera, 40. urteurreneko ospakizunetan murgildu zen. Maiatz hasieran, urteurreneko kontzertua eman zuten San Agustin aretoan. Ehun musikari baino gehiago batu ziren. Harrezkero, kontzertu gehiago antolatu dute, eurretari bat Durango-ko Ezkurdi parkeko kioskoan. Kontzertuen harreragaz "oso pozik" daudela azaldu zuen Ruiz de Alegriak, eta helburuak azaldu zituen: "Erronketariko bat kontserbatorioko ikasle kopuruari eustea da. Musika eskolak eta kontserbatorioak elkarren osagarri izan behar dute. Kontserbatorioak musika eskolaren jarduna baldintzatzen du, kontserbatorioaren arabera erabakiko delako zenbat klase eman daitezkeen. Guretzat oso garrantzitsua da piramidearen oinarria diren gazte horiek zaintzea. Horrez gainera, kontserbatorioan instrumentu berriekin hasia gustatuko litzaiguke. Adibidez, datorren ikasturtean tronboi ikasle bat hasiko da, lehenengoz. Azkenik, Jaurilaritza Goi Mailako Arte irakaskuntzak arautzen dituen dekretua prestatzen dabil; horrek atek zabalduko lituzke orain ez dauden instrumentuak sartzeko; adibidez, trikitia".



Maiatzeko udal hauteskundeek panorama politiko berri bati zabaldu zioten atea

► **Herririk herri** - DURANGALDEA

► **HAUTESKUNDEAK.** Maiatzaren 28ko hauteskundeek eta ondorengo asteetan alderdien artean egoniko negoziazioek aldaketak ekarri zituzten Durangaldeko herrietako alkatetzetara. Zenbaki orokorreari erreparatu gero, EH Bildurena izan zen Durangaldeko zerrendarik bozkatuena, 15.993 botogaz (aurreko hauteskundeetan baino 977 gehiago). EAJ geratu zen bigarren, 15.016 botogaz. Du-

rangoren kasuan, historian lehenengoz, EH Bildurena izan zen zerrendarik bozkatuena, baina hori ez zen nahikoa izan alkatetzari eusteko. EAJk hartu zuen aginte makila. Horretarako, beharrezkoa zuen PSE-EEgaz gobernu akordioa adostea eta gobernu eraketaren plenoan PPK aldekoa botoa ematea. Abadiñon kontrakoa gertatu zen: EAJ gobernutik irten eta EH Bildu sartu zen, Jose Luis

Navarrok hauteskunderi begira sorturiko Abadiñoko Independente Berriak taldearen babesari eskerrak. Atxondon eta Zaldibarren gobernu aldaketak gertatu ziren. Kasu bietan, EAJren eskutik EH Bildurenera pasatu zen aginte makila. Horrela, Atxondon Xabier Azkaratek Eneritz Agirrerri pasatu zion lekukoa, eta Zaldibarren Jose Luis Maiztegik Eneritz Azpitarteri. Elorrioren kasuan, EH Bilduk alkatetzari eutsi zion Elkarrekin Podemosen aldeko botoari esker. Berriz, EAJk PSE-EEren babesa behar izan zuen gobernuan jarraitzeko. Durangaldeko gainerako herrietako udal gobernuetan ez zen indar aldaketarik egon.



Belarrek zailtasun handiko bidea egin du

► **Kirola** - ATXONDO

► **ESKALADA.** Eskaladaren munduan gutxi batzuek lortu dutena lortu du aurturten Ainhize Belar atxondarrak. Maiatzean, 9a zailtasuna duen 'Begi puntuan' bidea kateatu zuen, Etxaurin. "Izugarri" poztu zen gora heldu zenean, baina gero jabetu da lorturikoaren garrantziaz. "Hasieran pozarren nengoen lorturikoagaz, baina ez nintzen horretaz kontziente, ezin nuen eginikoa sinistu. Gero konturatzen zara eginikoak duen dimentsioa", adierazi zuen.



**BIZI BADUZU, BETIKO IKASIKO DUZU
NEGUAN ZEIN UDAN ZABALIK
30 URTEKO ESPERIENTZIA**

www.zornotzakobarnetegia.eus
Tel. 94 630 8304





Amorebieta Futbol Taldea Bigarren mailara igo zen eta etxera bueltan zaleekin ospatu zuen lorpena

Kirola - ZORNOTZA

> **FUTBOLA.** Azken hamarkadako urteak bere historiako onenak izaten ari dira Amorebieta Futbol Taldearentzat. Birritan igo da Bigarren Mailara. Lehenengoz, 2021-2022 denboraldian. Abentura hark urtebete iraun zuen, baina aurten berriro Zilarrezko Ligara bueltatzea lortu du. Igoera ez zen gura zuten bezain arin heldu.

Hainbat jardunaldi eman zuten aukera matematikoekin, baina igoera lortu barik. Azkenengo jardunaldian Athletic B-ren kontra Lezaman lorturiko puntuak —husna berdindu zuten— eman zien mailaz igotzeko behar zuten puntua. Zale batzuek lorpena bertatik bertara bizitzeko aukera izan zuten. Beste ehunka lagunek

Zornotzako plazan ipiniriko pantaila handiaren bitartez ikusi zuten partidua. Biharamunean, toki berean batu ziren zale urdinak. Harrera instituzionalaren ondoren, jokalariek udaletxeko balkoira irten ziren eta ospakizunak goia jo zuten. Igoeraren gakoak ulertzeko, denboraldiaurrea jo behar da. Maila galdu eta gero,

taldea goitik behera eraberritu behar izan zuten udan, eta zeregin horretan Asier Goiria kirol zuzendariak eginiko lana azpimarratu behar da. Liga hasiera eskasa izan zen arren, burua hotz mantendu eta egonkortasunaren aldeko apustua egin zuten. Denborak arrazoia eman zien. Denboraldiari neurria hartu ziotenean, garaipenak bata bestearen atzetik heldu ziren. Zaleek taldeari emaniko sostengua ere azpimarragarria da: etxetik kanpora jokaturiko partidu batzuetara —Zubietan, Calahorran, Logroñon...— ehunka zornotzar joan ziren.

Jaietako erasoak gaitzetsi dituzte Matienan

Herririk herri - ABADIÑO

> **KONTZENTRAZIOA.** Traña-Matienako San Prudentzio jaietan eraso bi gertatu zirela salatu zuen Txosna Batzordeak. Batean, biktimei "ostikadak eta ukabilkadak" jo zizkieten erasotzaileek. "Jakín dugunez, erasotzaileek

talde bat osatzen dute. Abadiñoako zein inguruko herrietako liskar batean baino gehiagotan parte hartu dute", argitu zuten Txosna Batzordetik. Bigarren eraso eraso matxista izan zela jakinarazi zuten. "Taberna batean, gizon bik emakume bat inguratu eta eraso egin zioten". Eraso biak "gogor" gaitzetsi zituzten eta eraso jasan zutenei "babes osoa" eskaini zieten. Erasoen bihamunean elkarretaratzeetara deitu zuten, gertaturikoa publikoki salatzeke.



Lanean, indarkeria matxistaren prebentzio eta artatze integrala eskaintzeko

Erreportajea - DURANGO

> **ELKARRIZKETA.** Durangoko Auto-defentsa Feministako Asanbladak indarkeria matxistaren aurkako tresna berri bat sortzeari ekin zion orain urtebete inguru, eta horren berri eman zuten Mireia Delgado Expositok eta Mainer Huerta Ortuostek. Indarkeria matxista prebenitzeko eta biktimak

artatzeko zerbitzu integral bat eratzen dabilta. "Zerbitzuak indarkeria matxista kasu baten ondorengo denboran ipiniko du arreta. Hau da, indarkeria jasan duenari egiten zaion artatzean. Errekuperazio prozesua gorabeheratsua da eta kontuan hartu behar da kasu batetik bestera bakoitzaren beharri-zanak desberdinak izan daitezkeela", azaldu zuten.





ALUMINIUM KAPSULA BERRIAK



USAINA, ZAPOREA, ÑABARDURAK...
ETA INFINITUKI BIRZIKLAGARRIAK



Zornotza eta Durangaldea mundu mailako txirrindularitzaren epizentro Frantziako Tourreko etapa egunean

Kirola - ZORNOTZA

> **TXIRRINDULARITZA.** Aurtengo Frantziako Tourra berezia izan da euskaldunentzat. Lehenengo hiru etapak Euskal Herriko lurretan lehiatu ziren. Hirugarren etapa ez dute berehalakoan ahaztuko Durangaldeko herritarrek, eta, bereziki, zornotzarrek, hantxe hasi zelako egun hartako

etapa. Herritarrek goiz-goizetik izan zuten Tourragaz eta hark dakarren guztiagaz gozatzeko aukera. Irteera puntuan, zaleak txirrindulari taldeen autobus inguruetan pilatzen ziren, Vingegaard, Pogacar eta beste izar handiak bertatik bertara ikusteko, eta herriko gainerako kaleak ere jendez bete ziren munduko txirrindularirik onenak animatzeko. Durangal-

deko beste herri batzuetan ere gozatu ahal izan zuten Tourragaz. Iurretan eta Durangon, lasterketak herriko kalerik esanguratsuenak zeharkatu zituen; Maspe kalea eta Landako Etorbidea, adibidez. Beste hainbat esan daiteke Abadiñoako Traña-Matienari buruz ere. Ondoren, Trabakua igo eta kostalderantz zuzendu zen tropela.



Geu Be elkarteak lokal berria inauguratu du

Herririk herri - DURANGO

> **INAUGURAZIOA.** Kurutzia kaleko Garai jauregitik Intxaurrendoko eskolazaharretara tokialdatu zen Geu Be elkarteak. Inaugurazio ekitaldia ere egin zuten, ekain amaieran, urte askoan eskatzen ibili diren espazio berria dagoneko errealitatea dela ospatzeko. Pozik daude egoitza berriagaz. "Lokal berri

honetan, lehen ez geneukan zerbait daukagu: kanpoko eremua. Eremu horrek hainbat aukera ematen digu ekintzak bertan egiteko. Futbol zelaia dago, berdegunea, eta euritik babesteko aterpe bat ere bai. Barruko lokalean egiten ditugun ekintzez gainera, kanpoko eremu horrek joko handia ematen digu", azaldu zuen Julen Bengoa Geu Be elkarteko koordinatzaileak. Gainera, eremu berria herriko beste hainbat elkartegaz partekatzen dute eta horrek ate bat zabaltzen dio denen artean "sinergiak sortzeari".



Elorrio futbol taldea Euskal Kopako txapeldun

Kirola - ELORRIO

> **FUTBOLA.** Elorrio futbol taldea goi mailan aritu zen joan zen denboraldian. Euskal Ligan onenen parean ibili zen eta Euskal Kopa irabazi zuen. Azken garaipen hori ekainean heldu zen, fina-

lean Eibar taldea menderatuta. Partidua banako berdinketaz amaitu zen. Gol biak azken txanpan heldu ziren eta elorriarrena Itsasne Larruskainek sartu zuen. Euskal Kopako irabazlea penaltien txandan erabaki zen. Elorriok bostetik hiru sartu zituen eta Eibarrek ez zuen bat bera ere sartu. Izar Zubiaga atezainaren lana erabakigarria izan zen garaipena eskuratzeko.



LGTBI+ komunitatea "biolentziaren gorakadari" erantzuteko mobilizatu da

▣ **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **MOBILIZAZIOAK.** Ekainaren 28an, Harrotasunaren Nazioarteko Egunean, LGTBI+ komunitateak Durangaldeko kaleak hartu eta hainbat aldarrikapen egin zuen bertan. Azaldu zuten, eskuin muturra "oldartzen" dabil, eta "faxismoaren aurpegirik latzenak geroago eta hurbilago" daude. "Biolentziaren gorakada" horri erantzuteko asmoz, elkar antolatuz deitu zuten: "Ezinbestekoa da Durangaldeko eta Euskal Herriko mugimendu transmaribolloa saretuta egotea, faxismoari eta zisheteroaruari aurre egin gura badiegu", azaldu zuten.

"Komunitatea aktibatzea da helburua; zaintza auzolanean ere egin daiteke"

▣ **Herririk herri** - ELORRIO

> **ZAINTZA.** Iker Pinilla Perez (Berriz, 1983) Elorrioko Herrizaintza proiektuaren koordinatzailea da. Agintzari kooperatibarentzat lan egiten du eta honako hau da bere eginkizun nagusia: gura bako bakardadean bizi diren elorriarrak modu komunitarioan zaintzeko dinamikak sustatzea. Bide horretan eragiteko asmoz, Elorrioko Udalak Herrizaintza proiektua ipini zuen martxan iaz. Ordutik hona, Pinilla eta herriko boluntario sare bat telefono bidezko arreta eskaintzen ibili dira, bakardadean bizi direnekin entzute aktiboa egiten. Izan ere, datuek erakusten dute beharizan bat dagoela. "Gai honi heltzeko beharizana agerian geratu zen pandemian. Hori dela eta, Elorrioko Udalak beharizan sozialen diagnostiko bat egiten du etxerik etxe, urtero. Datu horien arabera, Elorrioren 118 dira 80 urte baino gehiago izan eta bakarrik bizi direnak. Kasu batzuetan, zaintza lanez arduratzen diren langileren batez bizi dira", adierazi zuen Pinillak. "Proiektu honek komunitatea aktibatzea du helburu. Zaintza auzolanean ere egin daiteke".



EUSKARAZ ETA BERDINTASUNEAN BIZI EGUNEZ EGUN!

berrizko UDALA
BERRIZKO UDALA

Tel.: 946 824 036
www.berriz.eus





Aitor Elordi mallabitarrak buruz buruko eta binakako txapelak jantzi ditu

Kirola - MALLABIA

> **PILOTA.** Aitor Elordik sekulako urtea izan du. Lehenengo, binakako txapelketa irabazi zuen, Jose Javier Zabaletagaz, eta, ondoren, ekainean, buruzko buruzko txapela jantzi zuen, Jokin Altuna 22-18 menderatuta. Mallabira bueltatu zenean, herritarrek merezi zuen moduko harrera egin zioten buruz buruko txapelaren. Bereziki hunkigarria izan zen, txapela jantzita eta garaikurra eskuan,

goraino beterik zegoen pilotalekura sartu zen unea. Omenaldiak hainbat osagai izan zuen: dantzariak, abesbatzako kideak, Beñat Ugartetxea mallabitarrak eskainitako bertso ederra, Elordik zaleei esaniko berbak... Dena DJ Txurruren musikak girotuta. Azkenik, afari herrikoian batu ziren eta gorputzak eutsi arte iraun zuen

ospakizunak. Buruz buruko finalari dagokionez, Altuna lau tantoko aldeagaz heldu zen lehenengo atsedenaldira (8-12). Ondoren, batak zein besteak tanto politak tartekatu zituzten. Azken txanpan emozioa izan zen nagusi: 19-16 / 19-17 eta 20-17. Txapela esku-eskura zuen Elordik. Hurrengo tantoa Altunak egin zuen: 21-18. Baina amezketarrak laburregi atera zuen hurrengo sarea eta Elordi 22ra heldu zen. Elordik aurten erakutsiriko maila ez da oharkabeen pasatu enpresarentzat, eta buruz burukoa irabazi eta egun gutxitara berri zion kontratua, 2025era arte.



Oporrak bizikleta gainean, 800 kilometroko abentura

Kirola - BERRIZ

> **BIZIKLETA.** Ander Moreira eibartarrak eta Képa Astorkia eta Jon Urbieta berriztarrek bizikleta gainean pasatu zituzten udako oporrak. Basajaun proban 800 kilometro egin zituzten, bost egunean. Antzeko abentura gehiago eginikoak dira. Esaterako, Hanburgotik (Alemania) etxerako bidea bizikletan egin zuten behin.



Ezkurdi, hamarkada bat emakumeen futbola sustatzen

Kirola - DURANGO

> **FUTBOLA.** Nesken Ezkurdi futbol kluba osasuntsu heldu zen 10. urteurrenera. Harrobian 100 bat neska dituzte, senior mailako taldera heltzeko ilusioz. Egun osoko jai batez ospatu zuten urteurrena, ekainean. Nerea Oleaga eta Jesus 'Txus' Sabana Ezkurdiko entrenatzaileak pozik daude klubaren egoeragaz, baina ez dira konformatzen eta inkesta bat egin dute, non hobetu jakiteko. "Formakuntza gehiago eskatzen digute, kalitate handiagoko entrenamenduak... Ez da erraza nesken entrenatzaileak topatzea. Horregaitik, harrobia prestatzen gabilta. Entrenatzaile guztien formakuntza hobetu gura dugu, entrenamenduen kalitatea hobetzeko", azaldu zuten.

Elkar Laguntzen sortu dute, bazterkeria egoeran daudenei laguntzeko

Herririk herri - ZORNOTZA

> **ELKARTASUNA.** Elkar Laguntzen Elkarte sortu zuten. Bere helburuen artean bazterkeriari eta pobrezari aurre egitea dago, eta informazio puntu bat dute. Oihane Garamendi, Javier Solaguren eta Kontxi Bilbao elkarteko kideak dira. "Iruditzen zaigu eragile zerbitzu profesionalen, elkarten eta mugimenduen arteko koordinazioa bultzatu behar dela. Alde guztien arteko engranaje lana egin dezake Elkar Laguntzenek".





"Adrenalina askatzeak erakartzen gaitu"

Akuilua - ZALDIBAR

> **GOITIBEHERAK.** Oier Letamendia zaldibartarrak eta Joseba Herreros elorriarrak goitibeherak dituzte pasio. Aldatsa taldeko kideak dira eta aurten Zaldibarko II. Goitibehera Jaitsiera antolatzen ibili dira. Mundu honetatik zer erakartzen dituen galdetuta, argi dute erantzuna: "Goitibeheragaz askatzen den adrenalinak erakartzen gaitu".



"Hamabost egunera egingo duen eguraldia ezin da jakin"

Herririk herri - DURANGALDEA

> **EGURALDIA.** Libe Gaztelurrutia eta Gorka Ormaetxea fisikari durangarrak ETBko Eguraldia lantaldeko kideak dira. Eguraldiaren iragarpena egiteaz gainera, meteorologiari buruzko bitxi-keriak batzen dituzte, eta informazio



hau jendeari helarazi. Jendeak adi jarraitzen die eguraldi iragarpenei, epe laburreko eta ez hain laburreko planak horren arabera antolatzen dituztelako. "Egoeraren arabera da hori. Egoera ezegonkorra denean ez da hain erraza, baina egoera normal batean, hiru edo lau egun lehenago nahiko pronostiko fidagarria egin daiteke gaur egun. Hortik aurrera, nahikotxo jaisten dira aukerak. Oso gatxa da egoera ezegonkor batean ekaitza noiz, zelan eta non botako duen zehaztea. Egoeraren menpekoak dira iragarpenak. Ez da berdina egoera antizikloniko egonkor batean egitea, edo

fronte bat badator", adierazi zuen Gaztelurrutiak. Ormaetxeak ere ildo beretik berba egin zuen. "Egoera egonkor batean, errazago asmatzen da. Gaur egun, zehatz jakin daiteke noiz sartuko den frontea, edo noiz hasiko den euria. Adibidez, enbata noiz sartuko den zehatz jakin dezakegu. Baina epe luzerako pronostikoak ez dira oso gertagarriak. Jendeak astebete barru zein eguraldi egingo duen begiratzen du mugikorrean, baina hori zientzia fikzioa da. Hamabost egunera egingo duena ezin da jakin, egiten diren iragarpenek %50ekoa baino probabilitate txikiagoa dute".

NEVERS
IKASTETXEA

Konfiantzan hazi eta hezi

Bruno Mauricio Zabala Kalea, 6
48200 Durango, Bizkaia

neversikastetxea.com

946 81 09 46

@neversikastetxea



Saharako 26 ume Durangaldera etorri dira uda elkarteen eta boluntarioen babesagaz igarotzera

▣ **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **GIZARTEA.** Saharako 26 ume Durangaldera etorri ziren uztailean, uda elkarteen eta boluntarioen babesagaz igarotzera. Ume horietariko 22 Río de Oro eta Hamadako Izarrak elkarteen bitartekaritzagaz etorri ziren; Lawjad elkarteak lau ume hartu

zituena harreran, Elorrioko familiek ostatu emateko. Tindufeko kanpalekuan erbesteraturiko umeak dira. Río de Oro harturiko umeak Izurtzako aterpetxean egon ziren, abuztua amaitu arte, eta bertan hainbat ekintza egin zuten: hondartzara irteera, surfa, tailerrak, mendira irteerak eta Donostiako Aquariumera bi-

sita, besteak beste. Egonaldian zehar, 80 boluntario eta monitorea saharar bi izan zituzten bidelagun. Hamadako Izarrak elkarteak, bere partetik, hamabi ume saharar hartu zituen harreran, eta egonaldia Zaldibarren egin zuten, Olazarren. Urte luzez Axpeko aterpetxean egin izan dituzte egonaldiok, baina bertan izandako

gorabeheren odorioz lekualdatu egin zuten egonaldia. 50 boluntariotik gora egon ziren monitorea eta sukaldari lanetan. Elkarteek eta herritarrek ez ezik, erakundeek ere egin zieten harrera ume sahararrei. Adibidez, Durangoko Udaleko talde politiko guztiek harrera instituzionala egin zieten udaletxean.



Izurtzako gasolindegia, bilgune herritarrentzat

▣ **Herririk herri** - IZURTZA

> **AISIALDIA.** Izurtzako Herriko taberna itxita egon den bitartean, sozializatzeko espazio zabal bakarra egon da herrian: Urkioil gasolindegiko taberna eta terraza. Urte bi daramatza zabalik, eta dituen ezaugarriengaitik, izurtzarrak ez ezik inguruetako herrietako jendea ere batzen da bertan; tartean, Durangokoa. Joera orokorra dela esan zuen Andoni Axpe Urkioileko arduradunak: "Ez dakigu Herriko

taberna itxita dagoelako den ala uda heldu delako den, baina azkenaldian jende gehiago ikusten dugu hemen". Terraza du arrakastarako gakoetariko bat, baina ez bakarra. "Lasai eta gure kontura egoteko aukera ematen digu, Durangoko burrundatik kanpora", azaldu zuten Peio, Iñigo eta Beñat gazteek; Gorka, bestalde, freskagarri bat hartzen zegoen alabagaz, eta "bertan erraz aparkatu" daitekeela azpimarratu zuen. Goretti bezeroak ohiko tabernak baino merkeagoa dela nabarmendu zuen. 06:00etatik 22:00etara egoten da zabalik taberna, eta kafea eta gosaria ere eskaintzen dituzte.



Iban Ibarretxe ohorezko danbor-jotzaile

▣ **Akuihua** - ZORNOTZA

> **JAIK.** Udazken taldeko Iban Ibarretxe txistulariak (Zornotza, 1973) agenda bete-beterik izan zuen udan. Herriko jaiak, Santurtzikoak, Bermeokoak... Horiei guztiei ospakizun berezi bat gehitu die aurten: ohorezko danbor-jotzaile izendatu dute Zornotzan. Pozik hartu zuen izendapena. "Danborrada zuzentzeari utzi nioanean, 2016an, udaleko urrezko domina

eman zidaten. Errekonozimendua aldi hartan hartu nuen, eta pentsatu nuen horregaz nahikoa zela. Baina orain beste izendapen hau jasoko dut, eta pozik nago. Orain dela urte asko, zuzendari nintzela, Raimundo Zugadiri eman genion ikur hori. Nik dakidala, orain arte behin baino ez da eman", esan zuen. Jaiak "errespetuz" bizitzeko deia egin zien zornotzarrei.

Hamar urteko ume bat hil da, Muntzaratzeko merenderoaren inguruko errekan itota

Herririk herri - ABADIÑO

> **EZBEHARRA.** Gorputzaldi eskasa uzten duten albiste horietariko bat utzi zuen uztailak Abadiñon. 10 urteko ume senegaldar bat, Mamdiaye, hil egin zen Muntzaratz auzoko merendero inguruan erreka jausita. Baloï baten atzetik zihoan. Ertzaintzako urpekariek eta suhiltzaileek uretatik ateratzea lortu zuten, eta larrialdi zerbitzuetako kideek bihotz-biriketako bizkortzea egin zioten arren, umea hil egin zen. Ertzaintzak abisua jaso zuen arratsaldean, umea galdu zelakoan, eta suhiltzaileen kamioi

bi, Ertzaintzaren helikopteroa eta anbulantzia bi bertaratu ziren. Abadiñon hiru dolu egun egin zituzten adin txikiko umearen heriotzagaitik; banderak haga erdian ipini zituzten, eta, udalak deituta, elkarretaratze isila ere egin zuten familiari elkartasuna, dolua eta errespetua adierazteko. Gorpuaren aberriratzeko gastuak Abadiñoko Udalak ordaindu zituen, bozeramaile batzordeak hala erabakita. Adin txikikoa Senegaldik Abadiñora etorri zen, oporretan; haren aitaren bidaia ere ordaindu zuten. Ehun bat lagun batu zituen elkarretaratzeak, eta Mamdiayeren senitartekoei eskerrak eman zizkien bertaratutakoiei: "Eskerrak eman gura dizkiegu euskal herritarrei; abadiñarrei, batez ere. Ez daukagu barbarik. Askok egin duzue gure alde. Berba egitea ere kostatzen da, baina ahaleginduko gara eskerrak ematen".



Hiru ikasle, Atxondoko igerilekuan

Herririk herri - ATXONDO

> **TURISMOA.** Mondragon Unibertsitateko Leinn graduako hiru ikaslek hartu zuten iaz Atxondoko igerilekuko taberna, unibertsitateko proiektu modura. "Ekintzailatza gradu bat

ikasten gabiltza eta kooperatiba bat sortzea eskatzen digute. Bederatzi lagunek enpresa bat sortu dugu eta proiektu horren barruan gauden hiruk hartu dugu taberna", azaldu zuen Aner Uribesalgo arrasatearrak. Dirua batzeko asmoz hartu zuten tabernaren ardura, datorren ikasturtean Koreara eta Indiara joan ahal izateko. Bidaiarako finantziarioa lortzeko, buru-belarri ibili ziren lanean.



DURANGO

Garena Eginez

www.durango.eus



11Lore elkarteak txupina jaurtita hasi dituzte Otxandioko jaiak

Herririk herri - OTXANDIO

> **TXUPINA.** 11Lore elkarteak bota zuen Otxandioko Santamaña jaietako hasiera eman zuten txupina. Elkar-
teak beharrezko duten familia eta
pertsonei laguntzen die, eta bertako
kideak diren Onintze Lopez de Leto-
na otxandiarra eta Julen Villalta ole-
tarra 11Loreko kideak elkarrizketatu

zituena ANBOTOk. Orain hamarkada
bat inguru hasi zen martxan elkarteak,
eta "ahal den neurrian" jendeak bizi
kalitate duin bat izan dezan lan egi-
ten dute. "Otxandiarren bizi baldin-
tzak hobetzea da taldearen funtziorik
printzipalena; batez ere, egoera zaur-
garria bizi dutenenak. Azkenaldian
8-10 familiari laguntzen diegu, eta
hamalau familiari laguntzera heldu

gara. Hainbat bidetatik batzen ditugu
elikagaiak", azaldu zuen Julen Vilal-
tak. "Helduen Heziketa Iraunkorra
ere bultzatu dugu; Durangotik dato-
rren irakasle batek klaseak ematen
ditu astean lau egunetan. Gutxienez
hamabi ikasle behar ziren taldea
osatzeko. Bada, aurtengoa bigarren
ikasturtea izan da eta hurrengoan
ere jarraituko dugu. Euskara taldeak

ere baditugu; udalaren eta AEKren
arteak talde bat sortu dugu. Klase
hauek guztiak mantendu gura ditugu,
garrantzitsuak direlako pertsonen
autonomia garatzeko", gehitu zuen
Lopez de Letonak. "Diru laguntzez
haratago, egunero sortu daitezkeen
kontuak ere badaude eta euren pro-
zesuak dituzte. Adibidez, beharrezko
batzuk dituen familia bat: elikagaiak,
mantak... dena delakoa; udalagaz or-
dua hartu dezakete egoera aztertze-
ko, baina ez dago ezer bien bitartean.
Deitu egiten digute, mobilizatu egiten
gara eta berehala erantzuten diegu
arazoari. Beharrezko puntualetarako
oso ondo funtzionatzen dugu".



Elixabete Etxanobe,
Bizkaiko ahaldu nagusi

Herririk herri - OTXANDIO

> **HAUTESKUNDEAK.** Elixabete Etxa-
nobe otxandiarra da Bizkaiko ahaldu
nagusi berria; EAJren eta PSE-EEren
botoei eskerrak izendatu dute otxan-
diarra Bizkaiko ahaldu nagusi. Lehe-
nengoz, emakume bat du buru Bizkaiko
Foru Aldundiak. Etxanobek Ana Otadui
elorrriarraren eskutik jaso zuen aginte
makila Gernikako arbolaren azpian zin
egin eta gero.

Otxandioko pilotaleku eraberritua gazteen plaza bihurtu da

Kirola - OTXANDIO

> **PILOTA.** Iluntxo pilota kluba etorki-
zun oparago baten haziak ereiten da-
bil. Herrian pilota biziberritzeko egiten
dabilen ahalegina fruituak ematen da-
bil. Umeak erakartzeko, plazara atera

dute pilota, eta ekimena oso erantzun
ona izaten ari da. 7tik 14 urtera arteko
30 gaztek asteko hainbat egunetan joko-
tzen dituzte partiduak, eta bai gazteak
eta bai euren gurasoak gustura dabil-
tza. "Partidu gehiago antolatzeko eska-
tzen digute", azaldu du Beñat Gorospe

Iluntxoko kideak. Herriko pilotaririk
onena den Ainhoa Ruiz de Infante klu-
bean egotea ere beste amu bat izan dai-
teke umeak erakartzeko. 2019an, klu-
bak kolpe handia hartu zuen Josetxu
Garaigordobilen eta Iñaki Uriarteren
heriotzekin (biek buru-belarri lan egin
zuten klubaren alde eta hilabete gutxi-
ren barruan hil ziren), eta, ondoren,
pandemiak zuzendaritza berriaren jar-
duna oztopatu zuen. Orain itxaropen-
tsu begiratzen diote etorkizunari.



Maumeko Erdi Aroko galtzadaren zati berria

Herririk herri - BERRIZ

> **ONDAREA.** Muxikako (Bizkaia) Auzolandegietan bigarren urtez indusketak lanak egin zituzten eta Erdi Aroko galtzadaren beste zati bat topatu zuten, aurretik ezagutzen ez zena. Muxika eta Berriz artean daude galtzadatik kontserbartzaren diren arrastoak, eta orain artean ezagutzen ez zirenak Berrizko Lurretan topatu zituzten. "Bizkaiko galtzadarik zaharrenetarikoa da. Gernikako sorrerako hirigunean, 1366. urtean du lehenengo aipamen idatzia. Lea Artibaiko eta Busturialdeko itsas

portuak eta Araba lotzen dituen ibilbidea da, XIV-XV. mendeetako, merkataritza fluxu handikoa", azaldu zuen Roke Ojanguren proiektuko kideak. Hasieran, Olea burdinolaren kontserbazio lanak sustatu behar zituzten, baina, azkenean, proiektuaren sustatzaileek galtzadako lanei ekitea erabaki zuten. 2023ko Auzolandegiak programa gauzatzeko, iazkoa baino laguntza handiago izan dute, eta horri eskerrak iraupena eta parte hartzaile kopurua bikoiztu da, Ojangurenaren esanetan. Aurten 40 nerabek parte hartu dute proiektuan, Juan Carlos L. Quintana arkeologoaren gidaritzapean. Muxikako Udalak sustatu du proiektua, Gazteaukeragaz lankidetzan.



Zornotzar bat, Irulegiko indusketan lanean

Herririk herri - ZORNOTZA

> **ONDAREA.** Aranzadi Zientzia Elkarteak Irulegiko Eskuaren aurkikuntza berri eman zuen 2022ko azaroan, eta aurkikuntza horregaz frogatuta geratu zen erromatarrek Euskal Herrira ailegatu baino lehenago orduko baskoiak alfabetatuta zeudela eta idazketa sistema propio bat zutela. Aurten, aurkikuntza garrantzitsu hori topatu zuten aztarnategian zornotzar bat egon da indusketa lanak era boluntarioan egiten. Inazio Aldazabal da bera eta astebeteko egonaldia egin zuen bertan; 2012an Amaiurko gaztelua industeko programetan parte hartu zuen eta egonaldi horiek zortzi ur-

tez errepikatu zituen. "Izatez arkitektoa naiz, baina betidanik gustatu izan zait arkeologia, txikitatik. Amaiurko esperientzia lagun baten deia zait hasi zen. Amaiurko indusketetara joateko animatu ninduen, eta beragaz joatea pentsatu nuen. Asko gustatu zitzaidan esperientzia. Amaiurrek sinbolismo handia du, hango gazteluan gertatu zelako Nafarroako Erresumaren azken borrokatariko bat. Irulegi orain urte bi bisitatu nuen, familiagaz, brontzeko eskua aurkitu baino lehenago. Eta aurkikuntza horri eskerrak leku ikoniko bihurtu da jada", kontatu zion ANBOTOri. Sortu den ikusmina igartzen dela esan zuen: "Amaiurrera jende asko joaten zen, sinbolo bat delako, eta herria eta Baztan oso ederrak direlako ere; eskua agertu denez, jende gehiago doala iruditzen zait".



Mikel Bizkarra, Euskaltel Euskadin 2025era arte

Kirola - MAÑARIA

> **TXIRRINDULARITZA.** Lesionatuta zegoela, Mikel Bizkarrak albiste ona jaso zuen. Euskaltel Euskadi taldeak konfiantza osoa eskaini zion 2025era arte kontratua luzatuta. "Lesionatu ondoren, berehala jakinarazi zidaten ez zela ezer ere aldatzen, eta hurrengo urte bietarako sinatzea baieztatu zidaten", azaldu zuen mañariarrak. Horrela, Bizkarrak gutxienez sei urte egingo ditu Euskadi

Fundazioaren talde profesionalean. Jorge Azanza kirol arduradunaren berbetan, Bizkarra taldeko zutabeetarikoa da, "erreferentziakoa". Okzitanian izandako eroriko batean, txirrindulariak izterrezurraren burua apurtu zuen, baina errekupeazioa "uste baino hobeto" zihoala azaldu zuen. "Euskaltel-Euskadi etxeko taldea da, umetan egon gura dugun taldea, miresten genuen taldea, eta, egia esan, ohorea da niretzat bertan egotea. Oso eskertuta nago denei, izan ere, denboraldiko lehenengo zatia oso ona izan zen, eta lesioaren ondoren berehala jakinarazi zidaten ez zela ezer ere aldatzen. Eskertzekoa da hori".





Otxandio
biziguraz betie

Otxandio Biziguraz Betie.

Alkarregaz aurrera goaz!


www.otxandio.eus



Izurtzako Herriko taberna berriro zabalik

Herririk herri - IZURTZA

> **OSTALARITZA.** Hiru hilabetez itxia egon eta gero, Izurtzako Herriko tabernak berriro zabaldu zituen ateak. Udane Ramírez Azkarate arduradun berriak itxura berria eman dio tabernari. "Taberna hau hestebeteengaitik eta pernilagaitik da ezaguna, eta hori mantendu egingo dugu; txorixoa, solomoa, saltxitxoa eta gazta ere baditugu", esan zuen Ramirezek.



Goiherri-Abadiñok zilarrezko eta brontzezko dominak irabazi ditu Suitzan jokaturiko Munduko Txapelketan

Kirola - ABADIÑO

> **SOKATIRA.** Abadiñoko tiralariek sasoi onean dauela erakutsi zuten 2023an. Emaitzek laguntzen dutenean motibazioak ere gora egiten duela argi dago. Abuztuaren 31n lur gaineko Munduko Sokatira Txapelketa hasi zen Suitzan. 25 herrialdeko 98 talde aritu ziren bertan. Guztira, 1.280 kirolarik parte hartu zuten; tartean, Abadiño Sokatira Taldeko zortzi tiralarik Goiherri taldeagaz batera. Goiherri-Abadiño taldeko emakumeek 500 kilorainoko txapelketa lehiatu zuten,

23 urtez azpiko mailan, eta zilarrezko domina irabazi zuten. Irati Abarrategi, Olatz Abarrategi eta Amaiur Uriarte abadiñarrek osatu zuten eskualdeko ordezkartza. Sailkapen fasean lan bikaina eginda heldu ziren finalera. Finalean tiraldi biak galdu zituzten, urrezko domina irabazteko faborittoa zen Taipei (Taiwan) Jingmei Dai Shi Dai taldearen kontra. Edozelan ere, euskal ordezkariak sekulako maila erakutsi eta zilarrezko domina lortu zuten. Durangaldeko tiralarien

bigarren lorpena irailaren 2an heldu zen. 23 urtez azpiko mailan brontzezko domina irabazi zuten, modalitate mistoan. Aipaturiko hiru tiralariez gainera, eskualdeko beste bost ere aritu ziren munduko txapelketan: Ane Abarrategi, Maui Mandaluniz (23 urtez azpikoa), Martxel Azkorbebeitia (23 urtez azpikoa), Xabier Irazola eta Asisko Arruabarrena. Hurrengo egunetan hainbat modalitate eta pisutan parte hartu zuten. Zoriontzeko moduko emaitzak izan ziren.



National Geographic, Mañariko Angurretan

Herririk herri - MAÑARIA

> **KULTURA.** Inauguratu zutenetik, askotariko jendeak bisitatu du Angurreta espazio gunea; esaterako, National Geographic Travellerrentzat erreportajeak egiten dituen Daniel Stables kazetaria egon zen abuztuan. "Txunditu egin nau. Paisaiaren erabilera zoragarria da, ondare industriala abangoardiagaz uztartzen duena", esan zuen Stablesek.



Mendibeltz areto-futbol taldea: denboraldiari bermeagaz aurre egiteko lanean

Kirola - DURANGO

> **ARETO FUTBOLA.** Mendibeltz areto-futbol taldea orain bost urte sortu zen, eskualdeko emakumeei areto-futboleant aritzeko aukera eskaintzeko helburuagaz. Baina beti ez da erraza izan, eta aurtengo denboraldi hasieran ere zailtasunak eduki dituztela aitortu dute. Zortzi jokalarigaz, lau gehiagoren premia zuten denboraldiari bermeagaz aurre egin ahal izateko. Horregaitik, 2007 aurretik jaiotako emakumeei taldera batzeko deia egin zieten azaldu dute: "Zuen beharriaz dugu. Ez gara areto-futbol talde bat bakarrik, kantxa barruan nahiz kanpoan momentu onekin gozatzen dugun emakume taldea ere bagara", adierazi zuten taldeko kideek. Deialdiak erantzun ona izan zuen eta denboraldiari ekin ahal izan zioten. Hala ere, ez zituzten emaitza onak lortu eta taldea, Santurtzi taldeagaz batera, sailkapenaren beheko aldean zegoen urtea amaitu orduko. Hain zuzen ere, ezker aldeko taldearen aurkakoa izan da orain artean lortu duen garaipen bakarra.



Sexu askatasunaren aurkako erasoak Elorrión

Herririk herri - ELORRIO

> **ERASOA.** Abuztuan, 48 urteko gizon bat atxilotu zuela jakinarazi zuen Ertzaintzak, Elorrión bertan, kalean, adintxikiko buri telefono mugikorragaz argazkiak atera eta grabazioak egin zituztelako baimenik barik. Gainera, eurentariko bati ukituak egin

zizkion. Gertakariaren aurrean, Elorrioko Udalak Bozeramaileen Bilera egin eta adierazpena argitaratu zuen, gertaturikoa gaitzesteko. "Giza eskubideen urraketa larria eta onartezina da", adierazi zuten. Horrez gainera, "babes osoa" eskaini zieten adintxikikoentzako familiei. "Gure herriko kaleetan erasotzaileak ez dira inpunitate osoz ibiliko. Herrian horrelako beste kasurik ezagutzen gero, salatzen animatzen zaituztegu", gaineratu zuten.



Dantzari Dantza parekidea Santixauetan

Herririk herri - GARAI

> **ERASOA.** Aurten argazki historikoa atera dute Garaiko jaietan. Santixau Egunean, Dantzari Dantza parekidea dantzatu zuten lehenengoz. Alazne Sarrigoitia izan zen egun seinalatu horretan dantzan egin zuten lehenengo emakumea. "Lasai egon naiz, Dantzari Dantza niretzat ez delako gauza berria. Prozesioa bai, berria izan da niretzat, baina ondo joan da. Askok gozatu dut", esan zuen Sarrigoitia.



Jokin Bilbao durangarra Espainiako Vueltan epaile lanetan aritu da

Kirola - DURANGO

> **TXIRRINDULARITZA.** Jokin Bilbao durangarra epaile lanetan aritu zen Espainiako Vueltan. Itzuli handi bat bertatik bertara bizitzeko aukera izateaz gainera, merezita irabazi zuen soldata. Izan ere, lehenengo etapa biak oso konplikatuak izan ziren. "Oso estresagarria eta kaotikoa izan zen, zoramena. Inoiz ere ez nuen horrelako egoerarik ezagutu", esan zuen. Umetan hasi zen osabagaz (hura ere epailea) lasterketetara joaten, eta orduan piztu zitzaion jakin-mina. 24 urte daramatza epaile lanetan. Vueltan motoan ibili zen, igarobide jakin batzuetan txirrindularien puntuazioa hartzen.



Leche BIZKAIA Esnea

www.bizkaiaesnea.com

Baserria zure eskuetan





Durangoko hainbat eragilek DOPA sortu dute, "osasungintza publikoa defendatzeko" plataforma

Herririk herri - DURANGO

> **OSASUNGINTZA.** Aurten Durango DOPA jaio da, Durango Osasungintza Publikoaren Alde izeneko plataforma berria. Elkartea herriko hainbat eragilek sortu dute, "osasungintza publikoa defendatzeko asmoz". Horien artean daude Andreak

elkartea, pentsiodunen mugimendua, Pediatria 24 orduz plataforma, anbulantzia medikalizatuaren aldeko taldea, Andaluziako Kultur Zentroa, Herria Auzo Elkartea, San Faustoko zentro soziala, herriko hainbat norbanako eta ELA, LAB eta CCOO

sindikatuak. Plataformako kideek irailean eginiko agerraldian azaldu zuten, osasungintza publikoak "okerrera eta pribatizatzerara" egin du azken hamarkadetan. Gainera, osasungintza publikoaren "etengabea eraistea" dagoela kritikatu zuten, eta osasun arreta "unibertsal, kalitatekoa eta doakoa" aldarrikatu zituzten. "Aurrez aurreko arreta osoa berreskuratzea gura dugu. Baita osasun mentalari dagozkion arloak hobetzea ere: psikologia eta psikiatria. 24 orduko pediatria zerbitzua gura dugu, eta anbulantzia medikalizatu bat Durangorako", gaineratu zuten DOPako arduradunek..

Jan-Lukas Menzelenek aldaketa klimatikoa berbagai izan du

Erreportajea - ZORNOTZA

> **OZEANOGRFOA.** Jan-Lukas Menzel ozeanografo zornotzarrak birritan bisitatu du Antartika, zientzialari legez. Mundu osoko 100 ikerlari ura izoztean eta izotza urtzean gertatzen diren prozesu fisiko, kimiko eta biologikoak aztertzerara joan ziren hara, 2019an. AsteKlimaren barruan, horren inguruan aritu zen Menzel eta, azaldu zuenez, "ozeanoetan dagoenaren %3 baino ez dugu ezagutzen".



Azkorbebeitiak 10. Munduko Kopan

Kirola - ABADIÑO

> **MENDI LASTERKETAK.** Skyrunner zirkuituko Munduko Kopako finala jokatu zen Italian, LimoneXtremeSkyrace lasterketa, eta final honek ematen duen puntuazioagaz gehi zirkuitu osoan korrikalari bakoitzak lorturiko hiru emaitzarik onenak kontuan hartuta, Oihana Azkorbebeitiak hamargarren amaitu zuen sailkapen nagusian. "Finalaren aurretik hamahirugarren nindoan sailkapen nagusian, eta Munduko Kopan nire helburua lehenengo hamarren artean egitea bazen ere, gatx ikusten nuen. Azkenean lortu dut eta opari ezin hobea izan da denboraldi borobil honi amaiera emateko", esan zuen abadiñarrak.



Nebrashkak lan labur berria kaleratu du

Kultura - DURANGO

> **MUSIKA.** Nebrashka talde durangarrak *Iraungipen datarik gabeko barrreak* hiru abestiko EPa kaleratu du aurten. Laukote legez kaleratu duen lehenengo lana da hau, Markos Agirrek taldea utzi eta gero. Egun, Ander Bastidak, Alain Asenjok, Txerra Gonzalezek eta Gorka Muñozek osatzen dute Nebrashka. Gorka Muñozek irailean azaldu zuenez, "oso gustura" daude eginiko lanagaz. "Apu bat luzeagoa izatea gustatuko litzaiguke, baina ditugun baliabideekin...", gaineratu zuen. Euren lan berri honek *grunge* ukitua duela ere adierazi zuen. "Doinu aldetik, rocka da, bai, baina *grunge* ukitua ere baduela esango nuke", gaineratu zuen. Durangoko jaietan ETS taldearen teloneroak izan ziren.

Murgoitio kilometro bertikalen Espainiako txapeldun

Kirola - ELORRIO

> **MENDI LASTERKETA.** Gontzal Murgoitio mendiko lasterketen Espainiako Kopa irabazi zuen iaz. Aurten ezin izan da modalitate horretan lehiatu, lesio baten ondorioz. Behin errekeratuta, jokatzeke zegoen azken txapelketan parte hartzea erabaki zuen, kilometro bertikalean, eta txapeldun geratu zen, promesen mailan. "Neure erritmoa hartu nuen eta ondo neurtu nuen indarra", azaldu zuen Murgoitio.



Garcia-Saez nagusi Arroita Jauregiren oroimenezkoan

Kirola - ABADIÑO

> **TRINKETA.** Kepa Arroita Jauregiren oroimenezko trinket txapelketak nobedadeak izan ditu aurten, bai paleta goman eta baita esku pilotan ere. Paleta gomari dagokionez, lehenengoz, bikote mistoek jokatu zuten eta Mikel Garciak eta Laura Saezek irabazi zuten txapelketa. Bestalde, esku pilotan inguruko gazteen aldeko apustua egin zuten antolatzaileek prentsaurrekoan azaldu zuten. Iker Bikandi iurretarra izan zen txapelduna. Bikandi nagusitasunez menderatu zuen Jon Jara, 40-26.

Akordioa Durangoko kirolegietan

Herririk herri - DURANGO


> **GREBA.** Zazpi hilabetez greban egon eta gero, Durangoko Kirol Zerbitzuko langileek akordioa lortu zuten udalagaz, eta urriaren 1ean lanera bueltatu ziren. ELA sindikatuaren esanetan, udalaren ikasturte berriko proposamenak langileen aldarrietariko "asko" jaso zituen. Hala nola fitness aretoko monitoreen laguntza zerbitzua une oro berrezartzea, eta baita errefortzua izatea ere jenderik gehien dabilen orduetan.



Gabon Zoriontsuak eta Urte Berri On!

"Zaindu dezagun maite dugun hori"

Abadiño
Elizateko Udala



Tabirakoren emakumeen taldeak 50 urte egin ditu aurten eta omenaldia egin diete Euskal Ligako finalean

Kirola - DURANGO

> **SASKIBALOA.** Tabirakoren emakumeen taldeak 50 urte egin ditu aurten. Tabirakokoak emakume aitzindariak izan ziren Durangon. Bost hamarkada igaro dira harrezkero. Eta irailean, Euskal Ligako finala Durangon jokatu zela baliatuta, sorrerako taldeko emakume bik sari banaketan parte hartu zuten: Rosa Trinidad Coronadok (Durango, 1957) eta Maribi Echaburu Gan-

diagak (Durango, 1957). Trinidadek adierazi zuenez, omenaldi eguna "oso berezia" izan zen. "Niretzat oso egun polita izan zen eta 50. urteurrena ospatzea harro egoteko modukoa da, baita talde honetan parte hartu izana ere", esan zuen. Bestalde, Trinidadek eta Echaburuk azpimarratu zuten Juanjo Morenok "paper garrantzitsua" izan zuela hasierako urte haietan. "Bera izan zen ekimen honen sortzailea, eta bultzatzailea izan da. Berari eskerrak egon da halako zaletasuna Durangon,

nagusien taldetik hasita oinarrira arte", esan zuen Trinidadek. "Oso gizon inplikatu izan zen. Jesuitetara joan eta zapatu-domeketan han egoten zen, kantxan, umeek zelan jokatzeko zuten ikusten. Bere bizimodua zen", gaineratu zuen Echaburuk. Trinidadek eta Echaburuk kirolaren alde ludikoa ere nabarmendu zuten. "Guretzat saskibaloian aritzea lagun artean ondo pasatzeko modu bat zen, ez genuen lehiakortasunez ikusten. Ezin hobeto pasatzen genuen", gaineratu zuen Trinidadek.



Mallagaraik musikala estreinatu du Madrilen

Kultura - DURANGO

> **ANTZERKIA.** Paule Mallagarai durangarrak hiru urte daramatza Madrilen lanean. Antzerki musikalen gunerik garrantzitsuenetariko bat da eta hori dela eta garrantzitsua deritzo han egoteari: "Hiru urte daramatzat bertan bizitzen eta argi dut oso leku aproposa dela musikaletan aritzeko". Irailean *Una rubia muy legal* antzezlan estreinatu zuen.



Gorulari dantzen 50. urteurrena

Gehigarria - IURRETA

> **DANTZAK.** Iurretan 50 urte bete dira aurten Gorulari dantzak berreskuratu zituztela, eta, hori ospatzeko, San Migel jaietan ekitaldi berezi bat egin zuten. Iurretarrak Donostiako udaletxe aurrean dantzatu zituzten Gorulariak lehenengoz.



Mendiguren garaile ardi-txakur txapelketan

Herririk herri - GARAI

> **ARDI TXAKURRAK.** Garaik Euskal Herriko ardi-txakurren txapelketa hartu zuen irailaren 16an. Hego Euskal Herriko lau lurraldeetako txakurrik onenak euren artzainen esanetara lehiatu ziren. Guztira, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako hamahiru artzain lehiatu ziren Garaiko Aiertza auzoan, bakoitza bere txakurragaz. 344 puntu lortuta, Enrique Mendiguren orozkoarra nagusitu zen, Laia txakurragaz. Angel Varona

geratu zen bigarren, Jai txakurragaz, eta Fidel Alonso, hirugarren, Lis txakurragaz. Kepa Ardanza abadiñarrak laugarren postua lortu zuen, Urbi txakurragaz. Aurten Garain jokaturiko edizioa berezia izan da. Izan ere, Euskal Herriko ardi-txakurren txapelketa 1937ko irailaren 16an jokatu zen lehenengoz, Garaiko Goierrri auzoan. Egun hartan, Zuhatzako (Aiara, Araba) Jesus Azpiazu artzaina eta Montes txakurra izan ziren garaile. Harrezkero, txapelketa 1981ean, 1988an, 1997an, 1999an eta 2021ean jokatu da Garain. Aurten ere bere sorlekura bueltatu da txapelketa, bere 50. urteurrena ospatzeko.

Durungaldeko Ezpatadantzari eguna ospatu dute Abadiñon

Herririk herri - ABADIÑO

> **DANTZARI DANTZA.** Eskualdeko dantzari batzuek, Gerediaga Elkartearen laguntzagaz, Durungaldeko Ezpatadantzari Eguna berreskuratu dute aurten. "Zenbait taldetako kideak dute aurten eta ikusi genuen Dantzari Dantza-aren egoera ez zela onena. Gerediagari laguntza eskatzea pentsatu genuen eta Ezpatadantzari Eguna berreskuratu

dugu Abadiñon", azaldu zuen prentsaurrekoan Unai Esturo Iurretako Dantza Taldeko kideak. Ezpatadantzari Eguneako anfitrioiak Abadiñoko Talde Batuak taldea izan zen. Taldeak 50 urte egin zituen 2020an, baina pandemiak bete-betean harrapatu zituen eta ezin izan zuten ospatu. Horregaitik, Ezpatadantzari Eguna urteurreneko ospakizun lez ere erabili zuten. Ezpatadantzari Egunak arrakasta itzela izan zuen, eta Abadiñoko Talde Batuak bi taldez gainera, eskualdeko beste zortzi taldek ere parte hartu zuten ekitaldian: Berrizko Ireminiek eta San Lorentzok; Durango Kriskitinek, Tronperrik eta Txoritxu Alaik; Iurretako dantzari taldeak; Mallabiko Gazte Alaik; eta Zornotzako



Mendi lasterketen goraldia Durungaldean

Kirola - DURANGALDEA

> **LASTERKETAK.** Mendi lasterkentzat urte oparoa izan da aurtengoa. Irailean lasterketa berri bi sortu ziren eskualdean; bata Elorrioren, Aldapegora mendi lasterketa, Erdella Mendi Taldearen eskutik, eta bestea Zaldibarren, Zaldia Trail, Zaldia Kirol Taldeak antolatuta. Biak ala biak "ibilbide exinjetegaz" jaio dira, baina korrikalarien erantzun bikaina izan zuten. Elorrio eta Zaldibar mendirako zaletasuna dutenen topagune bihurtu ziren eta antolatzaileak gustura geratu ziren euren probek izandako erantzunagaz.



Sorginen Lasterketa Atxondon

Kirola - ATXONDO

> **LASTERKETAK.** Sorginen Lasterketaren 15. edizioa jokatu da aurten Axpen. 350 korrikalarik 21 kilometro eta 1.700 metroko desnibel positiboa dituen ibilbideari egin behar izan zioten aurre. Gizonezkoetan, Gontzal Murgotio elorriarrak nagusitasunez irabazi zuen. 2.04.20ko denbora behar izan zuen 21 kilometroak egiteko. Bigarren Iñigo Pradera izan zen, eta hirugarren Ander Gerrikaetxebarria. Emakumeen kategorian, Lide Urrestarazu ordiziarra izan zen nagusi, Garazi Sampedro eta Oihane Unzaluren aurretik.

Axola zaiguna zaintzea, zure esku, gure esku.



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consorciodeaguas.eus



Mohammad Farajallah palestinarrak kezka bizi du Israelen eta Hamasen arteko gerra

Herririk herri - ZORNOTZA

> **PALESTINA.** Mohammad Farajallah palestinarra Zisjordaniako Hebron hirian jaio zen, 1986an. Bederatzi urte daramatza Zornotzan bizitzen, eta urriaz geroztik kezka bizi da. Urriaren 7an Israelen eta Hamasen arteko gerra lehertu zen Gazan. Erasoaldiek krudelkeria ekarri dute eta ahotsik kritikoek genozidioa egitea egotzi zioten Israeli. Farajallah kezka eta injustizia sentitzen ditu. "Palestinan hemen baino hobeto egongo nintzen, nahiz eta han arriskuan egon. Hemen kezkatuta nago une oro. Gertatzen dabilenari begira, albisteak etengabe irakurtzen, larrituta. Han, oster, familiaren eta lagunaren ondoan egongo nintzen", azaldu zuen elkarrizketan. "Askatasuna interesen eta boterearen arabera da, bai Palestinan eta baita mundu osoan ere", esan zuen palestinarrak.



Irazolak zezen baten adarkada jaso du

Herririk herri - MALLABIA

> **GERTAERA.** Urriaren 1ean zehar gertatu zitzaion Juan Luis Irazola abeltzainari. Gernikan izan zen, Pirinioetako arrazako ganaduaren Euskal Herriko txapelketan. 1.000 kilotik gorako idisko bat kamioitik ateratzera zihoala, oldartu egin zitzaion eta izterrean adarkatu zuen. Une estuak bizi izan zituen. "Lagun bik torniketeak egin zizkidaten; batek gerriko batez, eta besteak soka batez. Anbulantziako medikuek esan zuten torniketeak oso ondo eginda zudelak", azaldu zuen Irazolak. Segituan ospitalera eraman zuten eta, zorionez, ebakuntza ondo irten zen.

Euskaingintza Kontseiluaren deialdiagaz bat

Herririk herri - DURANGALDEA

> **EUSKARA.** Euskaingintza Kontseiluak manifestazioa egin zuen azaroaren 4an, Bilbon, *Oldarraldiaren aurrean: euskararekin bat, euskaraz bat* lelopean. Ekimenari bultzada emateko asmoz, Durangaldeko euskaingintzako hainbat eragilek bat egin zuen Kontseiluaren mobilizazioagaz. EHE, Berbaro, ANBOTO, Gerediaga, AEK, eta udal euskaltegiak gainera, besteak beste Durangoko ikastetxeetako hainbat ordezkari ere bat egin zuten deialdiagaz.



Biak Bat taldea, nesken harrobi arrakastatsua

Herririk herri - ELORRIO-ZALDIBAR


> **FUTBOLA.** Emakumeen futbol harrobia indartzeko asmoz, Elorrio eta Zaldia futbol klubek Biak Bat egitasmo bateratua hasi zuten 2019an. Elkarrekin 25 neska hasi zuten bere ibilbidea, eta lau urte geroago 126 neska dituzte, zazpi taldetan banatuta. Elorrioko eta Zaldibarko jokalariek ez zuten, Abadiño, Atxondoko, Zornotzako, Ermuko eta Eibarko jokalariek ere badituzte. Aurrera begira, seniorretako talde berri bat sortzea dute helburu.

SAN ROKE BARRIA



ETXEBIZITZA AUKERA ZABALA
3 LOGELA
295.000€ -TIK + BEZ

ERAIKUNTZA LANAK HASITA



Salmenta bulegoa Astxiki kalea 1, Durango

 **sukia**
Zure etxean zaude Estás en tu casa

946 462 041
www.sukia.com



Oihane Unzalu berriztarra onenen artean mendiko lasterketetan

📍 **Kirola** - BERRIZ

➤ **MENDI LASTERKETA.** Oihane Unzalu Aldekoa mendi korrikalariak oso denboraldi ona egin du aurten. Bigarren geratu zen mendi lasterketen Euskal Herriko Kopan, Zaldua Trailen garaipena eskuratu zuen eta Sorginen Lasterketan podiumera igo zen. Berriztarra ama izan zen orain urtebete, eta, ama izan dene-

tik, denboraren kudeaketa egokia prestaketaren alderdi garrantzitsu bihurtu zaio. "Haurdunaldiaren aurretik, zelanbait esanda, gura nuen egiten nuen: mendira joan, bizikletan ibili... Handik ordu bira edo hirura bueltatu arren, berdin zidan. Orain zorrotzagoa izan behar dut dudana denboragaz. Lehen kirola egiten

nuen eta orain entrenatu egiten naiz, helburuak lortzeko komenigarriena dena egiten ahalegintzen naiz. Denbora ahalik eta ondoen aprobetxatu behar dut, aitzakiarik barik", azaldu zuen Unzaluk. Berrizko mendi korrikalaria krosean ibili zen umetan. Gero, parentesi baten ondoren, asfaltoan korrika egiten hasi zen berriro, eta 2018

inguruan mendian. Eta gaur egun ere mendian jarraitzen du, baina lasterketa mota bietan parte hartzen du: mendikoetan eta asfaltokoetan. Gasteizko Gaikar Zortzietakoak taldean dabil. Datorren denboraldiari begira, berriro Kopa egiteko asmoa duela esan zuen Unzaluk. "Maratoi bat egin gura nuen, baina dagoeneko egin dut aurten, udan, nahiz eta ez zen helburua. Portugalen egiteko aukera sortu zitzaidan eta gustura ibili nintzen. Datorren denboraldian Kopa egin gura dut berriro, eta beste maratoiren bat: Marimurumendi beharbada, edo Hiru Txikiak...". gaineratu zuen.

Errelebo aldaketa Kimu lore dendan, Berrizen

📍 **Herririk herri** - BERRIZ

➤ **MERKATARITZA.** Aspaldian, komertzio ugari erreleborik barik zarratu da, baina salbuespena topatu genuen Berrizen. Belaunaldi erreleboa gauzatzen dabilta Berrizko Kimu lore denda. Amaia Zabala (Garai, 1958) Kimu lore dendako arduraduna izan da azken 21 urteotan, eta erretiroa hartuko du. Orain, erreleboa bere alaba Ane Etxei-

tak (Garai, 1988) hartuko du. "Geroago eta gehiago dira atea zarratzen dabilzan komertzio txikiak, baina hau ez da kasua. Amari jubilatzeke momentua laster ailegatuko zaiola eta, pauso bat eman dut aurrera, etorkizunean dendako arduraduna izateko. Beragaz hasi naiz lanean, martxa hartzen", esan zuen Etxeitak. Amaiak pozarren hartu zuen alabaren erabakia. "Ustekabea hartu nuen, ordura arte beti esan zidalak ez zuela dendaren ardura hartuko. Sorpresa hartu nuen eta pozik nago", gaineratu zuen Zabalak.



Marian Muñoz sozialista omendu dute Iurretan

📍 **Herririk herri** - IURRETA

➤ **POLITIKA.** Iurretan Marian Muñoz PSE-EEko zinegotzia omendu zuten, zortzi legegaitan zinegotzi izateagaitik. Muñozek 18 urte hartu zuen kargua lehenengoz, 1991ko ekainean, eta Iurretan Durangotik bereizi zenetik karguan egon den zinegotzi bakarra izan da. Hunkituta eta eskertuta agurtu zen. "Herriagaz batera hazi eta hobetu naizela uste dut", adierazi zuen.



Komunitate gutxituetako ordezkariak bildu dira Durangon

📍 **Herririk herri** - DURANGO

➤ **KOMUNITATE GUTXITUAK.** Munduko komunitate gutxituetako hainbat ordezkari Euskal Herrian egon ziren urrian, Garabide elkartearen eskutik, euren hizkuntza eta kultura biziberritzeko formakuntza saioak jasotzen. "Euskal Herrira gatozen lehenengo aldia da eta gure komunitatean aplikatu ditzakegun estrategiak ikasten gabiltza", azaldu zuten.



Urrestarazu eta Alzola nagusi Bertikalean

Kirola- ATXONDO

> **MENDI LASTERKETA.** Urriaren 7an Anboto Kilometro Bertikala jokatu zen, Arrazolan hasi eta Anbotoko tontorreraino. 3,8 kilometroko igoe-ra, guztira. Aurten, Bizkaiko Koparako puntuagarria izan da. Emakumeen kategorian, txapela Goierrri aldera joan zen. Lide Urrestarazu arineketalari ordiziarrak irabazi zuen lasterketa. 24 urteko korrikalari gazteak 48:37ko denboragaz

amaitu zuen proba. Bigarren postua Oihana Azkorbebeitia korrikalari abadiñarrarentzat izan zen, 50:27ko denboragaz, eta hirugarren postua Ainhoa Lendinez elgoibartarrarentzat, 51:41eko denboragaz. Gizonezkoen kategorian, txapela Debagoienara joan zen. Iñigo Alzola arrasatearrak irabazi zuen. Alzolak 40:03ko denboragaz amaitu zuen proba. Bigarren postua Aitor Ajuria otxandiarrarentzat izan zen. Ajuriak Alzolak baino bederatzita segundo gehiago behar izan zituen, 40:12, eta, beraz, lehia estua izan zuten bien artean. Hirugarren postuan oster, Vincent Loustau frantziarra sailkatu zen. Loustauk 41:19 behar izan zituen.

Aurrera doaz Eibarko Kirol Hiriaren obrak

Herririk herri - MALLABIA

> **FUTBOLA.** Apurka aurrera doaz Areitio gainean Eibar futbol klubaren Kirol Hiria egiteko lanak. Irailean, Mallabiko Udalaren eta Eibar Kirol Elkartearen akordioan jasoriko bidegorria eraikitzen hasi ziren, Mallabiko herri-gunea eta Areitio auzoa lotuko dituen. Eta, urrian, Areitio gaineko N-634

errepidean biribilgunea egiten hasi ziren. Lan horri eskerrak, biribilgunea errepide nagusitik sartu ahal izango da. Mallabiko Udalak Kirol Hiria urbanizatzeko obra-lizentzia eman zuen, eta baita 1., 2. eta 3. zelaien tribuna eraikitzeko ere, ohar batean azaldu zuenez. Halaber, espazio horretan aldagelak, gimnasioa, bulegoak eta eskaturiko beste zerbitzu batzuk ere egongo dira. "Beraz, datozen asteetan, Eibar Kirol Elkartek Mallabian dituen kirol-instalazio berriak etorkizunean martxan egon ahal izateko geratzen diren obra guztietan lanean ariko dira", adierazi zuten urrian.



IURRETAKO UDALA

Tel.: 946 201 200
www.iurreta.eus



Herritarren
Arreta
Zerbitzua

Bidebarrieta, 5
(48215 - Iurreta)



Mobilizazio jendetsuak azaroaren 30eko greba feministan

▣ **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **AZAROAK 30.** *Zaintzak erdigunean!* Seguruena horixe izan zen Hego Euskal Herriko luze zabalean azaroaren 30ean gehien entzun zen aldarrikapena. Mugimendu feministak "historikotzat" jo zuen greba jardunaldia. "Mugarri bat" ezarri zuela esan zuen, eta aurreratu zuen ez dela azkena izango, "ugari" izango dira eta etorriko direnak. Durangon, Berrizen eta Zornotzan oso jendetsuak izan ziren iluntzeko manifestazioak. Durangoko manifestazio amaierako ekitaldian adierazi zuten, egungo zaintza eredu "kolapsatuta" dago. "Sinesgarri digute familiak direla zaintza lan horiek egin behar dituztenak, emakumeak, zehazki esanda. Oso murriztak dira zaintza lanak eskaintzen dituzten gizarte zerbitzu publikoak. Gainera, zerbitzu gutxi horiek pribatizatzen ari dira instituzioetatik", kritikatu zuten. Egungo eredu "patriarkatua, kapitalismoan eta kolonialismoan" oinarrituta dagoela esan zuten, eta "beste zaintza eredu bat posible" dela aldarrikatu. Hori guztia dela eta, "zaintza sistema publiko eta komunitario baterako bidean, erabakiak hartu eta aldaketak emateko unea" dela azpimarratu zuten.

Palindromoei buruzko erakusketa Hontzan

▣ **Herririk herri** - MAÑARIA

> **HONTZA.** Hontza Natur-zientzien museoak literaturari zabaldu dio atea eta, ikusten denak baino gehiago, iradokitzen denak hartu du garrantzia. Zehatzago esanda, animalien izenak eta izen horiekin eginiko palindromoak dira erakusketaren muina. Palindromoa ezkerretik eskumara zein eskumatik ezkerredera berdina irakurtzen den berba edo esaldia da. Museoko sarreran eta lehenengo solairuko zati batean kokatu dute erakusketa. 2024ko martxora arte.



Arkaitz Rementeria padelean garaile

▣ **Herririk herri** - ELORRIO

> **PADELA.** Arkaitz Rementeriak Europako padel txapelketa irabazi du beterron mailan Euskadiko selekzioagaz.



Jesus Cañasek denda itxi du jubilazioa hartuta

▣ **Herririk herri** - ZORNOTZA

> **BIZIKLETA.** 14 urteren ondoren, Zornotzan bizikletak erosteko zein konponetzeko denda itxi eta jubilazioa hartu du Jesus Cañasek.

Emakumeen Lasterketa azaroaren 25ean, kirola eta aldarrikapena batuz

Herririk herri - DURANGO

> **AZAROAK 25.** Azaroaren 25a zela-eta hainbat ekimen antolatu zuten Durangaldean, emakumeen aurkako indarkeria ozen salatzeko. Esate baterako, Durango Kirol Taldeak Emakumeen Lasterketa antolatu zuen. Giro ezin hobean, kirola eta aldarrikapena batu zituen. Lehenengo, ibilbide testimonialekin zuten, eta jarraian Emakumeen Lasterketa, 5 kilometrokoa, biak Ezkurdi plazatik hasita.



Granada bat aurkitu dute Zabalandin

Herririk herri - DURANGALDEA

> **AURKIKUNTZA.** Abadiñoako familia batek granada herdoildu bat topatu zuen azaroaren 1ean, Urkiolako Parke Naturalean. "Arrazolatik Zabalandira egin genuen igoera, Andasto eta Anboto arteko pagaditik. Behin Zabalandira ailegatuta, inora ez daraman pista batetik sartu ginen, basoa zeharkatuta, eta hantxe topatu genuen granada", azaldu zuen familiak. Ertzaintzak Lehergailuak Indargabetzeko Unitate bat bidali zuen egun horretan bertan Zabalandira. Zantzu guztien arabera, gerra zibilekoa izan daiteke granada.



La Cuadri del Hospiren jaialdia Durangon

Herririk herri - DURANGO

> **ELKARTASUNA.** Durangoko elkar- teek jaialdi solidario bat antolatzeari ekin diote haur minbiziaren kontra egiteko. La Cuadri del Hospi elkartegaz batera, *Gu be zuek gara* izeneko eguna antolatuko dute 2024ko maiatzaren 12rako. Egun osoko jaialdia izango da, herriko kaleetan eta Landako Gunean gauzatuko dena. Baturiko dirua ume onkologikoen bizi kalitatea hobetzera eta minbiziaren aurkako ikerketara bideratuko dute.

Fradesek Cozumel Ironmana irabazi eta 2024ko munduko txapelketarako txartela eskuratu du

Kirola - IURRETA

> **KIROLA.** Gurutze Fradesek ezin izan zuen urri hasierako munduko txapelketan parte hartu, gaixorik zegoelako. Une latza izan zen, baina atleta iurretarra ez da amore ematen duen horietarikoa. Burua jaso, Konatik Mexikora joan eta Cozumel Ironmana prestatzeari ekin zion. Lanak bere fruituak eman zituen eta irabazi egin zuen. Garaipenagaz batera, 2024an Nizan lehiatuko den munduko txapelketarako sailkatu zen

iurretarra. Mexikoko Cozumel Ironmana duatloi formatuan lehiatu behar izan zuten. Ez zen igeriketa saiorik egon, itsasoaren egoera txarragaitik. Bizikletan lan txukuna egin, eta, ohikoa duen moduan, korrikako tartean atzetik aurrerako bidea egin zuen lehenengo tokia bereganatu arte. Helmugan honako hau izan zen bere denbora: 7:36.10. Ia zazpi minutuko aldea atera zion bigarren sailkatuari.



ekin
thinking together

BROTXAKETAREN ETA
IJEZKETAREN ALORREKO
KIDE GLOBALA

www.ekin.es



Zubiaurre familiako kide guztiak elkarregaz daude sorterriko gozotasunean

Herririk herri - GARAI

> **ARTEA.** Gutierrez-Zubiaurre familiak, Garaiko Udalak eta Gerediaga Elkartek Ricardo Gutierrez Abascalen oroimen ekitaldia egin zuten azaroan, Garaiko udaletxean. Izan ere, aste batzuk lehenago Gutierrez Abascalen gorpuzkiak Garaiko familiaren pan-

teoira ekarri zituzten. Gainera, haren heriotzaren 60. urteurrena bete zen iaz. 2000. urtean Garain eginiko Ezpatadantzari Egunean Zubiaurre neba-arrebei omenaldia egin zietenean, Leopoldo Gutierrezek (Ricardoren semea) bere gurari bat plazaratu zion Gerediagari:

bere familiako kide guztien gorpuzkiak Garaiko kanposantuan dagoen familiaren panteoira ekartzea. Ordurako, Pilar Zubiaurre amaren gorpuzkiak bertan zeuden, baina gainerako senitartekoenak Madrilen eta Mexikon. "Orain, Gutierrez-Abascalen gorpuzkiak Garaira ekarrita, esan dezakegu Leopoldo Gutierrezen nahia bete dela", azaldu zuen Gerediagak. "Gure familia Mexikon, Euskal Herrian,... sakabanatuta egon da. Aurrerantzean, Zubiaurretarrak beti egongo gara Garain. Eta gure ondorengok non gauden jakingo dute. Pozarren nago", esan zuen Maria Pilar Gutierrez Zubiaurrek, Valentin, Ramon eta Pilar artisten bilobak.



Puro Relajoren zale sutsua

Akuilua - ABADIÑO

> **ZALETASUNA.** Idurre Amezua (Abadiño, 1979) Puro Relajo taldearen jarraitzaile nekaezina da; orain sei urte ezagutu zituen, Arratzun, eta hurrezkerok aukera duen guztietan joaten da talde nafarrak emaniko kontzertuetara. "Mutil-laguna Puro Relajoren kontzertu batean ezagutu nuen", azaldu zuen Amezuak.



Xabier Amurizari omenaldi beroa

Herririk herri - ZORNOTZA

> **OMENALDIA.** Azaroan Xabier Amuriza omendu zuten Etxano sorterrian eta Zelaietako frontoian. Etxanoko 60 bat bizilagunek Amurizaren bizitza errekreatu zuten antzezlan ibiltari baten bitartez. Gauean, Euskal Herriko musikari eta artista ugariren laguntzagaz osaturiko ikuskizuna egin zuten Zelaietako frontoian. Antzezlan ibiltaria Bizkargitik hastekoa zen, baina, eguraldia zela eta, Autzaganen egin zituzten antzezlaneko lehenengo zati biak. Kristina Mardarasek eman zion hasiera kontakizunari, Amurizaren *Bizitza bat oroimenean* liburua oinarri hartuta. Antzezleak Amurizaren haurtzaroko pasarteak erreprezentatzen hasi ziren.

Artisauen azoka berria Abadiñon

Herririk herri - ABADIÑO

> **AZOKA.** Abadiñoko ekoizle eta artisau batzuek bultzatuta, hileko bigarren domeka guztietan azoka egiten hasi ziren Abadiñon, Zelaietako Txanportan plazan, 10:30etik 14:30era. "Azokak ekoizle finko batzuk izango ditu. Baina, eurak bakarrik egon beharrean, artisau batzuk eta beste ekoizle batzuk ere gonbidatuko ditugu", azaldu zuten Aitor Urienek eta Itziar Larrinagak azokaren inguruko elkarrizketan.





Zirimiria galtzear, ortua kaltetuta

Herririk herri - DURANGALDEA

> NEKAZARITZA. Azken urteotan bizi dugun aldaketa klimatikoak bete-betean eragin du baserrian. Roman Bengoa baserritarrak 30 urte daramatza

nekazaritza eskologikoa lantzen. "Oso zirimir gutxi egiten du. Lehen, neguan, txiri-txiri botatzen zuen aspertu arte", gaineratu zuen. Hazien inguruan ere berba egin zuen azaroko elkarrizketan: hiru-lau enpresak hazien barietateak gordetzen dituzte. Ortuaren erabiltzen diren produktuen barietateen %80 galdu egin da".

Merkataritza txikia errelebo bila

Herririk herri - ELORRIO

> MERKATARITZA TXIKIA. Elorrioko Merkataritza Elkarteak kideek *Hemen, bertan gaude* kanpaina hasi zuten

urriaren 31n, eta azaroaren 30era arte egon zen martxan, Izaskun Agirre EMEko presidentek elkarrizketan azaldu zuenez. Herrietako merkataritzagaz gertatzen dabilenaz ohartarazi zuen Agirrek: "Ikusten dugu jendea erretiroa hartzen dabilela apurka-apurka, eta ez dagoela erreleborik. Beraz, horrek dendak ixtea dakar".




Txantxibiri eskubaloia klub berria Elorrioren

Kirola - ELORRIO

> ESKUBALOIA. Nesken eskubaloia biziberritzen dabil Elorrioren, bai kategoria nagusietan eta baita umeetan ere. Nagusien berpizkundea jokalaririk ohie zoz zaie.

Jokalaririk gazteenak 28 urte ditu, eta zaharrenak 46. Maite duten kirolean elkarregaz gozatzea eta belaunaldi berriak erakartzeko eskubaloia lau haizeetara zabaltzea dute helburu. Jokalari hauen hainbat alaba hiru ikastetxek elkarregaz sorturiko Elorrio Kirol Taldean jokatzeko dabilta.



MAÑARIKO UDALA

946 818 998
www.mañaria.eus



Ikasleak JAEDeko boluntario

▣ **Herririk herri** - DURANGO-IURRETA

▸ **ELKARLANA.** Iurretako Juan Orobiogoitia institutuko hainbat ikasleak lan boluntarioa egin zuen JAEDen, elkarte horretako boluntarioekin batera. Elkarregaz osatu zituzten sortak, beharrian larrian dauden pertsona eta familiek hartu zitzaten gero. Ikasleak taldeka banatu ziren, beharrianaren arabera. "Batzuek fruta eta patatak pisatzen dituzte, eta beste batzuk arrautzak banatzeaz arduratzen dira, adibidez", azaldu zuen Estibaliz Zurikarai elkarte boluntario eta presidentea. Elkartearen pozik hartu zuten ikasleen parte hartzea, eta ikasleak ere pozik geratu ziren eginiko lanagaz. Bestalde, 60. urteurrenagaz batera, JAEDek inoizko errifarik gehien saldu gura du stand solidarioan Gabonetan: 70.000, iaz baino 5.000 gehiago. 2024ko urtarrilaren 6an egingo dute zozketa, Andra Marian.



Pagonabarragak laugarren finalean

▣ **Kultura** - DURANGO

▸ **BERTSOLARITZA.** Nerea Ibarzabal markinarrak jantzi zuen 2023ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketako txapela, abenduaren 15ean. Gorka Pagonabarraga durangarrak laugarren egin zuen, 609 puntu lortuta. 4.400 bat lagun batu ziren Miribillako harmailetan.



Durangoko Azoka fantasiaz betea

▣ **Kultura** - DURANGO

▸ **DURANGOKO AZOKA.** Durangoko Azokaren 58. aldiak eman zuen berea eta Gerediaga elkarte boluntarioek "pozik" agertu ziren Azokak iraun zuten bost egunetan kultur ekimenak

izan zuen "harrera arrakastatsua". "Jendetsua, bizia, irudimenez jantzia, anitza eta parte hartzailea" izan zela nabarmendu zuten. "Pozik gaude emaitza orokorragaz. Baita asebeteta ere, postua ipintzera etorri diren partaideen balantzea positiboa izan delako. Salmentak onak izan dira", gaineratu zuten arduradunek. Gazteen parte-hartzea nabarmendu zuten. "Aurreikusiriko moduan,

azoka gaztea izan da. Izan ere, kulturazale gazteek erantzun ona eman diote deialdirai, eta Azokara batu dira. Aurkezpenak jarraitzen eta erakusmahaietan kuxkuxeatzen ikusi ditugu egunero, eta zer esanik ez abenduaren 8ko jardunaldian, eurei eskainitako Gazte Eztanda egunean. Azokako partaideek ere nabarmendu dute gazteek erakutsitako interesa".



Gerra zibileko 51 gudariren gorpuzkiak topatu dituzte Zornotzako hilerrian

▣ **Herririk herri** - ZORNOTZA

▸ **MEMORIA HISTORIKOA.** Ez 20, eta ezta 25 ere, hasieran esan zuten legez. 51 dira Zornotzako hilerrian topaturiko gerra zibileko gudariak. Gogora Institutuak eta Zornotzako Udalak abenduan jakinarazi zuten, Aranzadi Zientzia Elkarteak gerrate hartako 51 gudari eta milizianoen gorpuzkiak topatu zituen. Aztarnen arabera, Zornotzan garaia hartan zegoen odol-ospitaletik edo zuzenean inguruko gerra-fronteetatik

eramandako milizianoen gorpuzkiak dira. Desobiratze lanak hilerriko eremu zehatz batean egin zituzten. Kanposantura sartu eta eskuma aldean dagoen zelai karratuan. Hain zuzen ere, gerra garaiko testigantzek eta dokumentazio historikoak ahalbidetu dute aurkikuntza, eremu horretan gerran hildako pertsonak lurperatu baitzituzten. Zelai zati hori ikutu barik egon da hamarkadarik hamarkada. Zornotzarren memoria historikoak ahalbidetu du eremu hori gerra sasotik hona kanposantuko la-

netarako erabili barik egotea. Gogora Institutuak gorpuak identifikatzeko prozesua hasi du. Hori dela eta, gerra zibilean Zornotza inguruan desagerturikoen familiei dei egin diete, Gogoragaz hartu-emanetan ipintzeko eta balizko identifikazio prozesu bat hasteko. DNA laginak aztertuta lan egingo dute, identifikazio genetikoagaz. EHUko Biomics laborategia arduratuko da zeregin horretaz. Hartu-emanetan ipintzeko, gogora@euskadi.eus helbidera idatzi edo 944 032 845 telefonora deitu behar da.

BIZI TZEKO HEZI

KURUTZIAGA
IKASTOLA 

ESKAINTZA:
0 urtetik 18 urtera bitarteko
hezkuntza eskaintza

HELBURUA:
Ikasle eleanitz, kritiko eta
euskaldunak

JANTOKIA:
Bertokoa, sasoikoa eta
produktu ekologikoak



www.kurutziagaikastola.eus



www.gualbiasesores.com

**Bezerao, bere enpresako
kudeaketa eta bere
gogobetetzea dira
gure helburu nagusia**



- ✓ **Aholkularitza fiskala**
- ✓ **Kontabilitate-aholkularitza**
- ✓ **Merkataritza eta finantza-aholkularitza**
- ✓ **Lan-aholkularitza**
- ✓ **Kontu-auditoretza**
- ✓ **Aholkularitza juridikoa**

Zumalakarregi kalea, 18 1.A - DURANGO

Tel.:946 818 636 - Faxe: 946 203 637 - info@gualbiasesores.com